


EHORZKETAK

I



EHORZKETAK I



SACRA CONGREGATIO PRO CULTU DIVINO

Prot. n. 1824/71.

DIOECESIVM LINGVAE VASCONICAE

Vigore facultatum huic Sacrae Congregationi a Summo Pontifice PAULO VI tributarum, interpretationem Vasconicam Ordinis Exaequiarum, prout in adiecto prostat exemplari, perlibenter "ad interim" probamus et confirmamus.

In textu autem imprimendo mentio fiat de confirmatione ab Apostolica Sede concessa. Eiusdem insuper textus impressi duo exemplaria transmittantur ad hanc Sacram Congregationem.

Contrariis quibuslibet minime obstantibus.

Ex actibus Sacrae Congregationis pro Cultu Divino,
die 23 octobris 1971.

Arturus Card. Tabera
Praefectus

Imprimatur

Baionan, 5-6- 1972 E. Laxague v.g.

ZER DIREN GIRIXTINO EHORZKETAK

- 1 Kristoren Bazko mixterioa du Elizak ospatzen, federekin bere haurren ehorzketan. Bataioaz Kristo hil eta piztuaren menbro eginak dira. Heientzat otoitz egiten da, Kristorekin batean heriotik bizirat iragan ditezten, beren ariman garbituak izan, eta zeruan sailduen ganat joan ditezten, hilen piztearen beha, bai eta Kristoren berriz etortzearen esperantza dohatsuan.
- 2 Horrengatik, Elizak eskaintzen du hilentzat Kristoren Bazko-oparia, eta heientzat otoitz egiten du ; hola, Kristoren menbroak elgarrekin bat direnaz geroz, batzuentzat ardiesten du goiko laguntza,besteri emanez esperantzaren kontsolamendua.
- 3 Behar ez bezalako urgulua utzirik, zuzen da ohore emaitea fededun hilen gorputzeri, Izpiritu Sainduaren egoitza izan baitira.
- 4 Beren haurriden ehorzketak eginez, girixtinoek erakutsi behar dute betiereko biziaren esperantza, beren mendeko eta herriko jendeen pentsatzeko moldeak errespetatuz haatik. Bai familietako ohiduretan, bai tokian tokikoetan onhartuko dute on ditaken guzia. Zerbeit balitz hor Ebanjelioaren kontrakorik, behar lukete horren aldatzerat lehiatu, ehorzketek erakuts dezaten beti Bazko-fedea, eta funski ager ebanjelioaren argia.

NORK DUEN PARTE

Ez familiak bakarrik

- 5 Jainkoaren herriko direnen guzien eginbidea da ehorzketan parte hartzea. Eginbide hori ez da berdin xorrotxa denentzat, bixtan den bezala . Hilaren haurride, ahaide eta adixkide hurbilena da gehienik eginbide hori . Guk, apezek, heiekin beharko dugu, ahal den guziez, hautatu hemen eskainiak zauzkigun gai guzien artean . Herriko girixtino batzar guziak ere parte hartu behar du. Apezek, liturgiaren buru eta mezaren emaille gisa ari denaz geroz, hor ere behar dute bete bere eginbidea : fedearen argitzaile eta kontsolamendu emaille izan.

Apeza, diakrea edo laikoa

- 6 Diakre batek egin ditzazke ehorzketak, salbu meza. Apezik edo diakrerik ez balitz, etxean eta hil-herrietan egiten diren otoitz-aldiak, laiko batek ere gida ditzazke .

"Pompes funèbres" eta bertze

- 7 Guri da heien laguntzea Liturgiak galdatzen dituenen errespetatzen.

Jendeari kasu egitea

- 8 Ehorzketako liturgia egina da Jainkoari hilen artamendatzeko, bai ta ere doluan direnen esperantza sustatzeko, Bazko-mixterioan eta hilen piztean duten sinestearen

handiarazteko. Hori ez ginuke behinere ahanzi behar, bereziki guk apezek. Fedetik dugun kontsolamendua eta Elizak eman nahi dioten sokorria doluan direneri ekartzean, kasu eginen dugu horren egiteko heien bihotz-mina errespetatuz.

- 9 Hortakotz familiari egiten diogun lehen bisitak inportantzia handia du. Senditu behar du guk ere parte hartzen dugula heien penan, egiazki, konprenituz eta lagunduz beren nahigabearen jasaiten girixtinoki, fedearen argiarekin .
- 10 Ehorzketako liturgia prestatzean eta gero egitean, orroitu behar gira nor eta zer zen hila dena, nola hil den, ahanzi gabe doluan utzi dituenen pena, eta heien girixtino biziak behar dituen laguntzak . Bertzalde ez dugu ahanzi behar nor izanen den elizan, nork entzunen duen Ebanjelioaren erakaspena : girixtino ez direnak, behinere edo guti heldu direnak elizarat, edo berdin fedea galdua duten girixtinoak. Horientzat ere Ebanjelioaren zerbitzari gira. Familian berean izan ditazke fedegabeak. Holakoen pentsatzeko moldea ere errespetatu behar dugu, baina ere lagundu behar ditugu konprenitzen zer egiten duen Elizak, eta zer sinesten duen .
- 11 Ez dugu ere berexkuntzarik egin behar hilari egiten diren ohoretan ; salbu ordinazioneak eskatzen dituen gauzetan, edo herriko buruzagieri zor zaiotenean.

III OTOITZ BEREZIAK MEMENTO BEREZETAN

- 12 Ritual berriak berexen ditu memento batzu : etxekoekin otoitza, beiladi-otoitza, hil-kutxaren hestea, etxetik abiatzea, elizan biltzen den batzarreko otoitz aldia, Jainkoaren Hitzaren entzuteko, eta Eukariztiaren eskaintzeko, eta azken agurraren egiteko, eta hil-herrietan ehorztea.

- 13 Huna laburzki bakotxak duen berezitasuna

1° Etxekoekin otoitza: erakusteko Eliza heiekin dagola, heietarik hurhil, heien penan parte hartzeko, herioak jo dituen orenean.

2° Beilaldi-otoitza : otoitz luzeago bat familiarekin, auzoekin. Elgarrekin orroitzen gira hilarekin pasatu egunez, eta Jainkoaren hitzaz. Hortarik sortzen da otoitz ezti bat .

3° Hil-kutxaren hestea : hilaren aurpegia ez dugu gehiago ikusiko. Memento lazgarria, baina esperantza ere. Agian Jainkoa ikusiko du; eta guk ere agian egun batez berriz ikusiko dugu.

4° Etxetik abiatzea : gizonen etxetik, Jainkoaren etxerat.

5° Elizan ahaide ta girixtinoen bilkura . Nahigabean bilduak, esperantza dion hitzaren entzuteko, Jainkoaren otoitzeko, eta hilaren azken agur baten egiteko.

a) Bilduak

Nahigabean direnekin
(gizonen arteko lokarrien seinale)
Elizan
(Jainkoa hor delako seinale)

SARTZEA

b) Esperantza dion Hitzaren entzuteko eta fedearen berritzeko

JAINKOAREN HITZA

c) Jainkoaren otoizteko Eskatuz barkamendua hilarentzat indarra haren ahaidentzat	OTOITZ edo KANTU
aitortuz Jainkoak guretzat duen amodioa, gu salbatzeko hil eta piztu den Jesusen baitan agertua	ESKER ONEZKO OTOITZA (Mezan edo gabe)
d) Hilari azken agur baten egiteko : joan zaikuna Jainkoari artamenda elgar berriz ikusteko esperantzan	AZKEN AGURRA

6° Hil-herrietan : hilarentzat hor bururatzen da lur huntako ibilaldia. Hemen gelditzen girenek, behar dugu gibelerat joan esperantza bihotzean.

Beti barnago sar

- 14 Otoitz-aldi horieri esker, ehorzketetan parte dutenak gero ta barnago sartuko dira Elizaren xedetan, hobeki konprenituko zer diren bizia eta herioa girixtinoentzat, bai eta onhartuko ere piztearen esperantza. Beraz, gai horiek erabiltzean kasu egin dezagun, gure fedearen alderdi guziak emeki emeki ager ditezten, otoitz-aldi bakotxaren berezitasuna begiratzuz .

Meza saildua

- 15 Familiarekin ikusiko da meza eman behar den ala ez . Ez eman, familiak edo batzarraren parte handi batek ez badezake parte har mezan, bereziki kominiatuz.
- 16 Ehorzketan mezarik ez bada, beste egun batez eman litake, familia eta girixtino batzarra hola bil baditazke.

Erretzea

- 18 Beren gorputza hii ondoan erretzea hautatu dutenak ere elizatik paosa ditazke bertzeak bezala. Nun ez duten hautu hori egin fedearen kontra. Familien libertatea errespetatuz, ez dezagun ahantz haatik Elizak bertze molde bat nahiago izan duela beti : Jesusen ehorzteko moldeak.

Elizkizunak bertzenak bezala egiten dira. Baina gorputza erretzen den kasuetako, gai bereziak badira (Beste liburuan)

IV NOLA BEHAR BEZALA MOLDA ELIZKIZUNA

Gure lana ez da bertze apez lanetik berex

- 19 Ehorzketen behar bezala zelebratzeko, eta hilen alde dugun eginbidearen betetzeko, behar dugu xuxen ikusi bat dela girixtino mixterioa, bat ere gure apez-lana.

Lan hortan sartzen dira ehorzketak. Eta horien aintzinetik, erien alderako gure lana, eta ere ehorzketatik kanpo herioaz emaiten dugun girixtino erakaspena. Liturgia guziak ere hortarat prestatzen gaitu.

Kasuaren arabera

- 20 Hautu handia eskaintzen dauku Ritualak, kasu bakotxaren arabera liturgia molda dezagun
- 21 Kasu egin behar dugu, girixtino otoitzaren alderdi guziak baliatuak izan ditezten, 12 eta 13an errana den bezala.
- 22 Berdin ere bi mintzaira erabili behar badira (frantsesa eta eskuara) kasu egin denek parte har dezaten behar bezala, bereziki parte handienetan, inportantzia gehiago dutenetan.

Eliza apaindu : nola ?

- 23 Elizkizunak egin, denek segi dezaketen lekuan. Zer argi, zer oihala ? Tokian tokiko ohidurak segi ditazke, berdin ere lorentzat.
(Ezko-argiaren ohidura ere ona da eta ez litake kendu behar)

Jauntzien kolorea

- 24 Beltza..... brioleta

Kantu eta musika

- 25 Badute beren balioa. Ahal bezenbatean, kanta dezagun meza, otoitza erreteko gisan Organixtak ere lagun dezake otoitza.

Eskaintzen prooxonea

- 28 Ohiduren arabera egin ditake, hola girixtinoek parte balin badute mezaren eskaintzan Parte hori hobeki hartuko dute, ber denboran ekartzen badira prooxonean aldarerat oia eta arnoa. Beraz, prooxone hori finitu-ta hasiko dira ofertorioko otoitzak.

Haatik, eskaintza horrek ez luke ahantzarazi behar kominiatuz dela hobekienik parte hartzen mezan .

Eskaintza hori hilari ohore egiteko, edo familiari gure amodioaren erakusteko balitz bakarrik, hobeki ezarria litake elizkizun guziaren ondarrean, azken agurraren mementoan.

V NOLAKO ELIZKIZUNAK ETA NUN

Elizan delarik elizkizun handiena

- 29 Molde horrek hiru "aldi" baditu: etxean, elizan eta hil-herrietan, eta horien artean proxinoak. Oraiko mendean proxino horiek ez dira gehiago errecki egiten ahal; beti utz ditazke.
- 30 Etxean edo hil-herrietan egiten diren "aldi" horientzat ardura gertatuko da apezka ez joaitea : lanaren gatik edo urrunegi. Horren gatik fededuneri erakutsi behar zaiote otoitz-aldi horiek egiten ahal dituztela berek, eta nola egin.

- 31 Elizako otoitz-aldiak badu beraz meza, salbu aste sainduko hiru egun handietan. Besta buruetan, edo Abendo, Garizuma edo Bazko denborako igandetan balinbada, egun hartako meza berezia hartu behar da, eta ez hilen meza

Arrazoin seriosekin ez badugu mezarik emaiten, behar da halere egin Hitzaren liturgia.

- 32 Elizako otoitz-aldia bururatzen da "Azken agur"-rarekin, nun ez den hau hil-herrietan egiten, denak han biltzen direlarik.

Bertzela

- 33 Apezpikuen biltzarrak kola hautatu duen herrialdetan, girixtinoen bilkura egin ditake hil-herrietan, edo ere, apezpikuaren baimenarekin hilaren etxean.

- 34 Hil-herrietan kapera bat delarik, bilkura han egiten da, mezarik gabe, meza aintzinean edo ondotik egiten dela.

- 35 Apezpikuaren baimenarekin, bilkura etxean egin ditake, baina mezarik gabe.

Ohar bat 33,34,35 an erranak ez dira gure eskualdetako.

VI HAUR TTIPIEN EHORZKETAK

- 36 Haur baten heriotzea beti nahigabe garratzagoa da aita-amentzat. Beraz pena horri kasu handiagoa eginez ditugu eginen haur baten ehorzketak.

- 37 7 urte baino gehiago baditu, ikus handienetan diren otoitz bereziak.

Beharrean har ditazke ere ttipien otoitzak.

- 38 Haur ttipientzat badira otoitz bereziak.

- 39 Bataiatua balinbada, gure sinestea da jadanik Jainkoaren zorionean sartua dela, bataioaren bidez Jainkoaren haur egina baita. Beraz, haren aita-amentzat dugu otoitz egiten, fedeak kontsola ditzan.

- 40 Bataio aintzin hil bada, baina aita amek bataiatu nahi bazuten, elizan barna eginen dira ehorzketak. Beti segituz apezpikuak eman manuak. Holako kasuan ere etxean bakarrik egin ditake elizkizuna.

- 41 Dena den, badira otoitz bereziak bi kasu horientzat.

OHARPEN BATZU

Gehienetan hauta ditake otoitz bat edo bertzea, kasu bakotxaren arabera (ahal bezenbatean familiarekin hitz-harturik)

Rito batzu, otoitz batzu har edo utz ditazke, hauturat.

Salmoetan bertsu batzu ere utz ditazke .

Otoitzak hil batentzat eginak dira. Beharrean aldaketak egin.

"Zure zerbitzaria" gure haurridea, gure anaia, gure arreba, hilaren izena..... guri da hautatzea zer erraiten dugun .

(.....) artean diren lerroak ere utz ditazke beharrean.

Gorputza aintzinetik ekartzen delarik elizarat`.

Elizkizun bat egin ditake memento hartan, hunela:

Elizako atean agur bat egiten zaio, eta gero organoak jo dezake, edo kantu bat eman ditake.

Gero irakurtzen da Joaniren ebanjeliotik 14,1-6, edo bertze irakurgai bat.


Gero salmo bat eman ditake edo litani-otoitz bat

Dena burura Gure Aita erranez.

Gero gorputza ezar bere leku berezian.

JENDE HELDUEN

EHORZKETAK



Badaki berak hezurrez hezur gure berri :
Ezagutzen du gu jitez garen errauts hori.

Gizon biziak uda-belarra zoin iduri,
Pentze loreen pareko lore sortzen hari .
Aizea heldu eta lorea histen ari :
Zagon tokia nihori nihun ez ageri.

Jainkozalentzat Jainko bihotza ezin neurri :
Betieretik betierean miresgarri.
On dajiote heien semeen semeeri,
Balinbazaizko josiak eta zuzen ari.

114-115gn Salmoak

Leloak 69 Ibiliko naiz Jauna baitan
 Bizi direnen eskualdetan (93,95)

On eta zuzen dugu Jauna : Jaunak betiko bihotz ona .
Begiratzen du den xumena : Kendu daut harek nuen mina .

Badut sineste, nahiz nion: "Ezin dut ezin jasan hori ."
Erran dut, minez bainindagon : " Gizonak dena maltzurkeri."

Jainkoarentzat gauza gaitza ; Bere sainduen heriotza .
Zuri naiz, Jauna, dena zuri , Ez dut orai nik deus lokarri.

121gn Salmoa

Leloak : Zure etxera goaz, Jauna, hauxe da gure zoriona.

132 Piztu naiz, piztu, baitut entzun :
 Goazen Jaunaren etxeraino (112,125)

Piztu naiz piztu, baitut entzun : Goazen Jaunaren etxeraino
Hara nun orai bagaitutzun, Jerusaleme, atetan so.

Jerusaleme hiri gaitza, Denen biltzaile den bihotza ,
Jaunaren haurrak, haurrak oro Horrat doatzi lerro-lerro .

Jaun izenari , zor bezala, kantatu behar diotela .
Hor du zuzenak zuzen-alki , Dabid semeak hor egoki.

Jerusalemek, otoi, bake, Zuri daudenak bozik beude.
Bake dadila zure baitan, Egun gozoak jauretxetan.
Anaien eta denen alde otoizka diot : Zuri bake ,
Jainko Jaunaren etxeari Zerutik otoi, on-iturri.

129gn Salmoa

Leloak : Leize hautarik oihuz nago, noiz nauzun ote adituko (91)

Jaunaren beha dut bihotza, egia daukat haren hitza . (86),

Leize hautarik zuri oihuz, Entzun nezazu, entzun, Jauna .
Dena beharri nitaratuz, Entzun nik egin dei auhena.

Gaizkiez orroit bazaude zu, Zuri so, Jauna, nor dagoke ?
Denen barkatzen maite duzu : Beldur bezenbat badut bake.

Jaunaren beha dut bihotza : Egia daukat haren hitza.
Nik segurago Jauna goza, Gau-zainek baino goiz-argia.

Jauna bihotzez da betea : Zoin maite duen salbatzea .
Hak du Izrael salbatuko : Hoben guziak joanen daizko.

142gn Salmoa

Leloa : Otoi, Jainkoa, nere otoitza entzun zazu. (9)

Nere otoitza, onhar,Jauna : Entzun nik egin dei auhena,
Ona baitzare guziz ona, Entzun nezazu, Jaunen Jauna.
Ez dei auzirat zure dena : Zuretzat nor da zuzena ?

Gogoan ditut joan egunak, Bihotz barnean zure lanak .
Zuk egin lanez orroit ari, eskuak dauzkat deika zuri .
Lur idorrak dei, nahiz uri : Arima zutaz dut egarri .

Laster ihardets, otoi, Jauna, Joana dut kasik hatsa joana.
Begitarte zue ez gorde; Ez nadin lerra hobi alde .
Goizetik ixur zuk grazia : Zure eskutan naiz guzia.

Zure nahien egiteko Argi nezazu; nik zu Jainko .
Zure gogoak eremana, dudan har bide segurrena.

Bertze lelo zonbeit hauturat

42° Salmoan : Jauna, zeruan zuri beha
Bihotz barnean, zer betea.

26° salmoan : Jaunaren baitan hil direnak
Zorionean dira denak.

MEZA HASTE

Elizan sartzea

- 43 Hasi aintzin, organoa jo ditake, jendea bildutasunean ezartzeko.
- 44 Etxetik elizarat etortzea prooxinoan egin bada, apezarekin, elizan sartzea egiten da deus berezirik gabe.
- 45 Ez bazen prooxinorik, apeza badoa aterat, eta han familia agurtzen du. Hilaren gorputzaren ondoan otoitz ixil bat egiten du, kurutzearen seinale batekin, nabi bada . (Ur benedikatuarekin ihinzatzea utz azken agurrarendako) . Erran dezake ere 179-180 eko otoitza.
- 46 Gorputza aintzinetik bere tokian bada, apeza badoa bere usaiako tokirat beste mezetan bezala.
- 47 Gorputza nun eta nola ezar ? Erdian, denak ikusteko gisan.
(Apez edo diakre batena, aldiz, jendeari buruz itzulia)

Argiak ezar ditazke itzulian, edo Bazko-argia bakarrik, edo argiak Bazko-argiaren itzulian. Argiaren ritoa egiten bada (n°54), Bazko-argia da bakarrik aintzinetik piztua.

Ohiduren arabera, loreak ezar ditazke, eta ere hilaren medailak, (espanturik gabe haatik...), eta erraiten ahal da zertako diren han ezarriak (n° 53,1°)

Sartzeko kantua

- 48 Elizan sartzean eta meza hastean, kantu bat bakarria eman. Noiz has?

Gorputza sartu ordu, edo bederen aski jende badelarik kantatzeko.

Agurra, Mezaren dela

- 49 Meza, bertze aldietan bezala hasten da, hemen diren gai bereziak baliatuz .

Hitzaren liturgia bat balitz bakarrik, mezarik gabe, agurraren ondotik, hasteko deia egin eta , segidan irakurgaiak hasten dira.

Hauturat diren ritoak

- 50 Agurraren eta deiaren ondotik, egin ditake rito berezi bat hauturat.

Loreak, edo kurutzearen pausatzea, edo argia, edo jauntzi xuria Ikus n° 53,54,57,182,183)

Bekatu en urrikia eta mezako otoitza (Oremus)

- 51 Meza den guzian egin behar dira.

Mezarik ez bada, egin ditazke edo ez, gure hauturat .

Eta gero heldu da Hitzaren Liturgia.

HERRIARI AGURRA

- 52 *Sartzeko kantuaren ondotik, herriari agurra egiten da, beste mezetan bezala, edo hemen den agur berezia erranez*

Esperantzaren Jainkoak eman diezazuela
bake ta fedearen betea,
eta Jauna izan bedi beti zuekin

Eta zure Izpirituarekin.

DEIAREN EGITEKO

- 53 Hemen bilduak gira ...
nahigabetan direneri gure amodioaren erakusteko,
eta ere parte hartzeko heien penetan
- (Hemen erran litake zertako diren loreak, dolu-minak...)*
- Erakusteko bizi huntako gorabeheretan bat egiten gaituzten
lokarriak, ez dituela herioak hausten
(Erran ditake nolako lokarriak ditugun hilarekin.)
 - Bildutasunean otoitz egiteko,...
..... Jainkoaren Hitza entzuteko....
..... Jesus Jaunaren sakrifizioan parte hartzeko....
 - Sinesten dugulakotz Jainkoa orroitzen dela **I...**-ren bizian
zer izan den eder, handi eta goresgarririk,
eta hari galdatzeko bere ondoan onhar dezan
- Loreak aipatuz, erran ditake*
- Gure amodioaren eta errespetuaren erakusteko
ezarri ditugu lore hauk :
gure hitzek erraiten ez dakitena, erran dezaten.

HAUTURAKO RITOAkArgia

- 54 *Bazko-argia meza aintzinetik piztua dago; apezak, edo hilaren ahaide batek edo auzo batek, hartarik sua hartu-eta kutxaren ondoko argiak pizten ditu, eta gero, apezak erraiten du*
- 55 Argi hau pizten dugu **I...** gure haurridearen ondoan,
Su hau, zu ganik heldu zauku, Jauna, gure ilunbeen argi.
Orai egiten dugun urratsa argi dezala,
aintzina joan gaitezen esperantzaz.

edo

56

Jainko gure Aita,
I.... gure adixkidearen heriotzeak
 orroitzarazten gaitu deus guti dela gizona,
 eta laburra haren bizia.
 Bainan zure amodioan sinesten dutenentzat
 herioa ez da denen bururapena.
 Hor dugu Jainko-semeen esperantza,
 eta guretzat argi egiten du Kristo piztuaren argiak,
 herioaren garraile den Kristoren argiak.

(Argiaren pizte hori egin litake ere Ebanjelio aintzin)

Kurutzea

57

Balia ditake edo familiak ekarri kurutzea, edo elizakoa.

58

Familiak ekarri kurutzea bada, apezak edo ahaide batek ezartzen du kutxaren gainean.

Ekarri dugun kurutze hau, orai hemen ezartzen dugu.
 Jesus Jauna, orroitzarazte
 heriotzeraino maitatu gaitutzula :
 kurutze hau izan bekigu
I....rentzat eta gu guzientzat duzun amodioaren ezagutgarri,

59

Elizako kurutzea bada, lehen auzoak orai arte atxiki -eta, ezartzen du xutik kutxari hurbil.

Gero, apezak erraiten du :

Kurutze hunek adiarazten dauku
 Jesus Jaunak maitatu gaituela
 guretzat hiltzerainokoa :
 izan bekigu **I....** eta gu guzientzat
 duen amodioaren ezagutgarri .

Jauntzia

60

Apez edo diakre batentzat, alba xuria ezartzen da.

Haur bataiatu berri batentzat, edo kominione handia berriki egin duen haur batentzat, ezar ditake jauntzi xuri bat, kominioneko alba bat . (Ikus n° 182-183)



BEKATUEN URRIKIA

- 61 *Aldareko liburuan den bezala egin ditake. Edo, hirugarren moldean, hemen emana den bezala.*
Hemen den otoitz hau beste memento batean ere erabil ditake, Urrikal dakigula erran gabe .

Fidantzia oso batekin itzul gaiten Jesus Jaunaren alde

- 62 **Jesus Jauna,
kurutzean odola ixuriz
gure bekatuak kentzen ditutzu,**
 Urrikal, Jauna R/ Urrikal Jauna
- Jesus Jauna,
hil hobitik piztuz
heriotik ateratzen gaitutzu,**
 Kristo, urrikal. R/ Urrikal Jauna
- Jesus Jauna,
zure aintzan sartuz,
bizia salbatzen daukuzu,**
 Urrikal, Jauna. R/ Urrikal Jauna
- Urrikal dakigula Jainko guziz ahaltsua,
eta gure bekatuak barkaturik
ereman gaitzala betiko bizitzera**

EDO

- 63 **Jesus Jauna, Jainkoaren Semea,
gure nahigabe ta bozkariotan
parte hartzeko mundurat etorria,**
 Urrikal, Jauna R/ Urrikal, Jauna,
- Jesus Jauna,
gure baitan herioaren eta bekatuaren garraitzeko
kurutzearen gainean hila,**
 Kristo, urrikal. R/ Kristo, urrikal
- Jesus Jauna,
guri biziaren bidea zabaltzeko
hilen artetik piztua,**
 urrikal, Jauna. R/ Urrikal, Jauna.

OTOITZA

64 *Zoin otoitz (oremus) har ? Aldareko liburuan, hilen mezetan direnetarik bat, edo hemengoetarik bat, kasuaren arabera .*

65 Idek, Jauna, gure bihotzak zure erranetara,
heien bidez izan dezagun argi gure ilunduran,
segurtamen gure dudetan,
eta elgar laguntzeko indar egun hautan.
Zure Seme

Edo

66 Jesus Jauna,
zure nahia da gure artetik joan denak
orai guziak bere ondoan bil gaitzan.
Lanaren eta gure grinen gatik barreiatu ginauden,
eta denak utzi ditugu
zure baitan parte hartzeko bertzen nahigabea.
Gu bezalako gizon izan zira zuhaur,
zabal-zkitzu, otoi, gure bihotzak
zure hitzaren argiari,
gizonentzat duzun maitasuna erakusten baitauku.
Ereman gaitzazu hola I...-ren ganat, zuri hurbilago ;
zu bizi baitzira orai eta menderen mendetan .

Edo

67 Jesu Kristo gure Jauna,
hemen ditutzu zure etxean bilduak
joan zaikun I...ren adixkideak
Gure nahigabea, zure alde itzultzen gira ,
mundu huntan bizitzerat eta hiltzerat etorri baitzinen,
gizon guziek zurekin izan dezaten bizia
Zabal-zkitzu, otoi, gure bihotzak esperantza hortarat.
Aitarekin eta Izpiritu Sainduarekin batean

(Supituki hil den batentzat)

68 Jauna, nigarretan gaude gure anaiaren gatik,
ustegabetan galdu dugulakotz :
erakuts-aguzu zure bihotz on neurrigabea,
sinets dezagun zure ondoan bizitzerat deitu duzula ,
Zure Seme

(Gazte batentzat)

71 Jauna, gizon guzien biziak zure eskuetan ditutzu :
entzun gure otoitza hoin gazterik joan zaikun
I gure adixkidearentzat,
zure etxe zoriontsuan aurki dezala betiereko gaztetasuna.
Zure Seme

(Gazte batentzat)

70 Jauna, ez dugu errexki konprenitzen
 I nola hil ditaken hoin gazterik,
 (nola desegina izan ditaken loratzerat zoan bizia.)
 Bainan, baitakigu zure ganik bizia ukan dutenak
 beti zure eskuetan direla, hilik ere ,
 zuri otoitzez gaude **I...** gure adixkidearentzat.
 Aita batek bezala onhar-azu zure etxean,
 han aurki dezan igurikatzen duen zoriona,
 Kristoren betiereko gaztetasuna.
 Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean

(Biziki pena handia egiten duen heriotze batean)

69 Jesus Jauna,
 ikusten duzu gure nahigabe ezin jasana,
 ez dugularik onhartzen ahal ere **I...-ren** hola joaitea,
 Zure ganat itzultzen gira
 zuk ezagutzen baigaitutzu,
 eta zuhaur iragan baitzira
 konpreni ez ditaken kurutzeko heriotzean barna.
 Egizu, konpreni dezagun zure amodioaren aberastasuna,
 heriotzetik eremaiten baigaitu bizirat,
 menderen mendetan .

(Eritasun luze baten ondotik hil den batentzat)

72 Jainko gure Jauna, **I...** gure anaia (*haurridea*)
 eritasun eta herituretan zure zerbitzari leial egin duzu :
 oinazeak zure Semeak bezala jasan dituenaz geroz,
 emozu ere parte haren ospean.
 Zure Seme

edo

73 Herioak diozka **I...** gure adixkideari
 kendu bere sofrikarioak,
 bainan hori bera bertze atsegabe baten iturri da guretzat.
 Zure alde itzultzen gira beraz, Jainko gure Jauna;
 Badakigu, agoniaren eta kurutzeko heriotzearen ondotik
 zure Seme Jesu Kristo gure Jauna,
 hilen artetik piztu duzula
 Egizu, haren urratseri jarraikiz, berriz ikas dezagun
 Bazko goizeko argirat deramazkiela
 Galbarioko bideak, hari goiti doatzinak.
 Zure Seme

(Haur gibelatu batentzat: handicapé mental...)

- 74 Jainko gure Jauna,
nahigabetan gaudelarik ere beti maite gaitutzu :
Onhar-azu,otoi, **I...** gure adixkidea
Aita baten bihotz gozoarekin,
eta emozu argian eta bakean bizitzea,
bakotxa bertze guzien berdina den tokian.
Beha zozute ere maitatu, artatu eta lagundu duten guziera,
eta emaguzu indar eta bihotz,
elgarrekin guduka gaiten beti
gaitz eta gaizki guzien kontra.
Zure Seme

(Ebanjelioaren zerbitzuko lan egin duen batentzat)

- 75 Zure urrikalmenduari otoitzez gaude , Jauna,
zure zerbitzariarentzat :
Ebanjelioaren zabaltzeko asko lan ibili baitu,
sar dadila orai zeruko zorionean.
Zure Seme

edo

- 76 Neurrigabeko zoriona hitzeman diozute, Jauna,
lehenik zeruetako Erresuma bilatu duteneri.
Zure hitzari fidaturik, otoitz egiten dautzugu
bere bizia Ebanjelioaren zabaltzeko eman duen **I.....**-rentzat.
Sar dadila orai bere nausiaren bozkarioan,
bake ta amodiozko betiko Erresuman,
eta zurekin bizi dadila gizaldi eta gizaldi guzietan..

(Hil batzuentzat)

- 77 Bizitzaren Jainko saindua, ez duzu onhartzen ahal
herioak garrait ditzan zure haurrak ;
eta nahi duzu beti zure biziaz bizi ditezen
zure iduriko egin ditutzun gizonak.
Ongi da beraz joan zaizkigunentzat zuri otoitz egitea :
heien bekatuak kendurik,
emozute zure ondoan bizitzeko zoriona,
eta zure amodioa gorestea betierean.
Zure Seme

edo

- 78 Jauna, ez diozute gizoneri bizia emaiten
gero betierean hiltzeko;
Zorion gutizia emaiten diozute
dohatsu izaiterat deituak direlakotz.
Gure ahuleziak aitortuz,
I...ta I... zure zerbitzariarentzat otoitz egiten dautzugu :
ken ditzozuten zutarik urruntzen dituen traba guziak,
eta zure Erreinuan onhar ditzazun zure ondoan . Zure Seme

Jaun-andere batzuentzat)

- 79 Jainko Jauna, erakuts, otoi, zure urrikalmendua
I... ta I.... zure zerbitzariari :
 elgarren amodio leialez bat izan dira bizi huntan,
 bat izan ditela betikotz zure maitasunaren betean.
 Zure Seme

(Gure baitan ezarri duzun maitasuna....)

- 80 Amodio, eta amodio guzien iturri ziren Jainkoa,
I... zure zerbitzariarentzat gure baitan
 ezarri duzun maitasunak gaitu ekartzen
 zuri fidantziarekin otoitz egiterat.
 Bekatoros guzieri zuk barkatzen baituzu,
 eta biziarazten baitituzu zuhaurek saindutuak.
 Emoza gure adixkideari
 zuri leial daudenentzat daukazu zoriona.
 Libra zazu osoki zutarik urrun daukaten traba guzietarik,
 eta emoza zure aintzinean egoitea pizteko egunean.
 Zure Seme

(Kristo herioan gaindi iragan da)

- 81 Jauna, zure Seme maiteak, herioaren garraitzeko,
 behar izan du hartan barna iragan, bere ospean sartu aintzin.
 Egizu berriz **I... ta I....** zure zerbitzariarentzat,
 zure Semearentzat egin duzuna :
 izan ditela harekin batean herioaren garraile,
 eta zure ospe osoan ikus dezatela
 gure Aita eta Salbatzailea zirela .
 Zure Seme

(Jainkoa zoin den urrikaltsua)

- 82 Jainko Jauna, zuk emaiten duzu bizia,
 zuk berriz biziarazten dituzu hilen gorputzak,
 eta entzuten bekatorosen deiak .
 Ikusazu gure bihotzmina, eta onhar
I... zure zerbitzariarentzat egiten dautzugun otoitza.
 Atera zazu heriotzetik eta bete zure zorionaz,
 zure saindu guziekin batean .
 Zure Seme ...

(Esperantzaren begiratzeko)

- 83 **Bihotz onez entzun, Jauna, gure galdeak :
handiago egizu, otoi,
zure Seme hiletarik piztua baitan dugun fedea
I... gure haurridea piztuko delako esperantza ere
handiagoa izan dadin .
Zure Seme**

(Piztearen ezagutgarriaz markatuak...)

- 84 **Jainko Aita guziahalduna,
Kurutzearen mixterioaz azkartu gaitutzu,
eta zure Seme piztuaren ezagutgarriaz markatu :
Emozu **I....** gure anaiari,
bizitze huntako lokarrietarik libratu-eta,
zure adixkideen zorionean sartzea.
Zure Seme**

(Kristorekin pizteko)

- 85 **Jainko Aita guziahalduna,
zure Seme Jesus Jauna hil eta piztu dela
aitortzen du gure fedea :
mixterio hunen bidez egizu, **I...** gure anaia
herioan Jesusekin bat izan den bezala,
piztean ere harekin bat izan dadin.
Zure Seme....**

(Jainkoa, bizien Jainkoa)

- 86 **Jainko gure Jauna,
zure baitan bizi dira hiltzen diren guziak,
eta gure gorputzak hiltzean ez dira galtzen,
bainan bizi berri baterako aldatzen .
Zuri otoitzez gaude,
onhar dezazun zure zerbitzariaren arima.
Eta guziz ona baitzira,
barka zozu lur huntan egin duken gaizkia ;
goza dezala zure ondoan betiko zoriona,
(Abraham zure adixkidearekin)
eta pitz dadila , munduaren jujatzeko ,
berriz etorriko ziren egun haundian.
Zure Seme ...**

- 87 *Bertze kasuetako (hala nola: apez....) ikus Aldareko liburuan*

HITZAREN LITURGIA

88

Ehorzketan Hitzaren Liturgiak inportantzia handia du. Bazko mixterioa adiarazten dauku, Jainkoaren Erresuman berriz elgar ikusiko dugulako esperantza hazten du, bai eta agertzen hilen eta bizien arteko lokarriak zoin barnakoak diren, eta dei bat egiten dauku egiazko girixtino bizi bat ereman dezagun .

Hemen diren irakurgaien artean hauta ditake , bai eta ere Igandetako edo astelegunetako bertze irakurgai bat ere, iduritzen bazauku hobe dela .


Irakurgaien arteko salmoa, hemen direnetan hauta. Leloen artean hautu handia badugu . Salmo hori emaiten da kantuz, edo irakurtuz igandetean egiten den bezala.

Alleluia ere kanta ditake .

Mezarik ez bada emaiten, irakurgai bat bakarra egin ditake .

89

Mezarik ez bada, egiten da halere Fededunen otoitza, Gure Aita erranez burura ditake orduan, eta gero egiten da Azken agurra.



EPIXTOLAKO IRAKURGAIAK

1*(Piztearen esperantza)***Joben liburutik****19, 1.23-27**

Egun heietan, Jobek erran zuen :

- 23 "Ai, nere hitzak izkiriatsuak balira,
ai, liburu batean jarriak balira,
24 burdineko zizelaz berunean, eta betirako harrian ezarriak,
25 Badakit , nik, nere Salbatzailea bizi dela,
eta azkenean xutituko dela hilen errautsaren gainean.
26 Nere gorputzarekin xutik egonen naiz,
eta gorputzeko begiez ikusiko dut Jainkoa.
27 Nihaurek ikusiko dut,
eta nere begiek behatuko diotelarik, ez du burua baztertuko."

2*(Justuen bizia Jainkoaren eskuetan)***Zuhurtzia liburutik****3,1-9**

- 1 Justuen bizia Jainkoaren eskuetan dago,
deus oinaze ez zaiote lotuko .
2 Zentzugabeen ustez, iduri zuten hilak;
zorigaitz zaukaten heien mundutik joaitea ;
3 gure ganik joan direnean, denek uste zuten suntsituak zirela,
hek aldiz, bakean daude.
4 Gizonen ustez, gaztiguaren pean ziren,
eta hek, esperantzaren bidez, ezin hiltzearen jabe.
5 Apur bat pairatu-eta, neurrigabeko ontasunak izanen dituzte,
Jainkoak frogatu baititu eta beretzat on aurkitu.
6 Urrea labeaz bezala, heien balioa frogatu du,
eta onetsi ditu sakrifizio osoaren pare
7 Jauna ikustera etorriko zaiotelarik, justuek argituko dute ;
su-pindarrak belar idorrean iduri, dirdiratuko dute.
8 Populuak jukatuko dituzte, gizaldeak manatuko ;
betiereko mendeetan, Jauna izanen dute Errege.
9 Jauna baitan sinesten dutenek egia adituen dute ;
harentzat leial daudenak, haren alderako naitasunean egonen dira,
bere hautetsieri emaiten baitiote grazia eta urrikalmendua.

3

(Nota gabeko biziak adin ederra balio)

Zuhurtzia liburutik 4, 7-15

- 7 Gazterik hil-eta ere, zintzoak aurkituko du atsedean.
 8 Zaharraren ohorea, ez du biziaren luzeak egiten,
 ez da urtez neurtzen.
 9 Gizonak, adimendua du egiazko buru xuria,
 nota gabeko bizitzea, bere adin betea.
 10 Jainkoaren gogorakoa baitzen, Jainkoak maite izan du ;
 eta bekatorosen artean bizi baitzen, handik atera du .
 11 Jainkoak ereman du, gaizkiak ez zezon adimendua zikint,
 ez eta maltzurkeriak arima lilura.
 12 Huskeriaren lillurak itzaltzen baitu ongia,
 gutizia tzarren zoramenak gaixtatzen bihotz garbia .
 13 Epe laburrez bururat heldurik, bide luzea egin du .
 14 Haren bizia Jainkoaren gogoko baitzen,
 Jainkoak goizik atera du hemengo tzarkerietarik.
 Jendek ikusten dute eta ez aditzen, ez zaiote gogoratzen
 15 Jainkoak bere hautetsieri emaiten diotela
 grazia eta urrikalmendua,
 eta zaintzen dituela bere adixkideak

4

(Jainkoak suntsituko du herioa)

Izai profetaren liburutik

25,6a.7-9

- Egun hartan,
 6 Jaunak, zeru-lurren Jainkoak populu guziera
 egingen diote bazkari bat bere mendi gainean.
 7 Kenduko du jendaia guziak inguratzen zituen dolu-oihala,
 herrialde guziak estaltzen zituen hil-mihisea.
 8 Herioa suntsituko du behin betiko.
 Jaunak xukatuko ditu begitarte guzietako nigarrak,
 eta lur guziaren gainetik kenduko du bere populuaren ahalgea :
 berak hitzeman du.
 9 Eta egun hartan erranen da :
 " Huna gure Jainkoa, hari ginauden eta salbatu gaitu ;
 hura da gure Jauna, hari ginauden ;
 jauz eta bozkaria gaiten, salbamendua eman baitauku ."

5

(Gauden Jainkoari nahigabetan)

Auhentzaren liburutik

3,17-26

- 17 Joan zait bakea bihotzetik , ahantzia dut zoriona.
 18 Erran dut : " Nereak egin du,
 joan da Jaunaren ganik naukan esperantza."
 19 Nere zorigaitz eta herstura gogoan erabiltzea,
 kirets zait eta pozoin .
 20 Beti ta beti hori daukat gogoan : eroria daukat bihotza.
 21 Bainan ene gogoari erraiten diot zertarik dutan nere esperantza :
 22 Jaunaren ongiak ez dira agortzen,
 ez eta haren urrikalmenduak atertzen.
 23 Goiz guziez berritzen dira,
 ezin etsitua baita zure leialtasunaren handia.
 24 Nere partea, Jauna, dio nere arimak,
 hargatik dut esperantza haren baitan.
 25 Jauna ona da hari dagonarentzat, haren bila dabilzanentzat.
 26 Bai on da ixiltasunean igurikatzea Jaunaren salbamena.

6

(Hilentzat otoitz egitea)

Daniel profetaren liburutik

12,1-3

- Egun heietan, ni Daniel, nigarrez nindagolarik,
 aditu nuen solas bat Jaunaren ganik :
 1 "Egun heietan jeikiko da Mikael buruzagi handia,
 zure herriko semeen zaintzalea.
 Herstura handia izanen da, ez baita berdinek izan
 herriak izaiten hasi zirenetik hunaraino .
 Bainan aldi hartan salbatuko da zure herria
 bai eta liburuan izkiriaturik dauden guziak.
 2 Lurreko errautsean lo daudenetarik ainitz atzarriko dira :
 batzu betiko bizirako,
 eta bertzeak betiko lotsa, betiko ahalgerako.
 3 Jakintsunak zeruko argiak bezala dirdiratu du,
 eta zuzenbidea askori erakutsi diotenak
 izarrak bezala betierean, gizaldiz gizaldi .

7

(On da hilentzat otoitz egitea)

Makabetarren liburutik

2a : 12,43-46

- 43 Egun heietan, Judas gerlari bihotzdunak,
 eske bat eginik, igorri zituen bi mila zilar peza Jerusalemerat,
 bekatuendako sakrifizio bat eskain zezaten .
 Ongi eta ederki egin zuen, piztearen sinesteak emanik.

- 44 Ezen, ez balu esperantza izan, gerlan eroriak piztuko zirela,
alfer eta xorokeria zitaken hilen alde otoitz egitea.
- 45 Bainan bazaukan, sailduki lokartu zirenek
ukanen zutela egun batez sari ederra,
- 46 asmu saildu eta salbagarria boita hori
Hortako zuen eskaini sakrifizio hori,
hilak beren bekatuetarik libratuak izan ditezen.

8 (Jesus Salbatzaile eta Juje)

Apostoluen Egintzetarik

10,34-43

- Egun heietan,
34 Petri mintzatu zen erranez :
"Orai ezagutzen dut Jainkoak ez duela berexkuntzarik egiten
gizonen artean ;
35 bainan onhartzen duela
edozoin herritan haren beldur dena eta zuzen dabilana.
- 36 Berak igorri diote Izraelgo semeeri bere Hitza,
bakearen berria emanez, Jesu Kristoren bitartez,
Jesus hura baita guzien Jauna.
- 37 Badakizue zer gertatu den Judea guzian gairi, Galileatik haste,
Joanesek predikatu bataioaren ondotik:
- 38 Jesus Nazaretarra,
Jainkoak kontsekratu duela Izpiritu Sainduz eta indarrez bete.
Bazabilan ongia eginez,
eta debruak bere meneko zauzkan guziak sendatuz,
Jainkoa harekin baitzen .
- 39 Eta gu, apostoluak, lekuko gara
harek Juduen eskualdean eta Jerusalemen egin dituen guzietaz.
Hil dute zuraren gainean ezarriz.
- 40 Jainkoak piztu du hirugarren egunean,
41 eta eman dio agertzea , ez populu guziari ,
bainan Jainkoak aintzinetik hautatu lekukoeri, guri,
hura hiletarik piztu ondoan,
harekin jan eta edan duguneri.
- 42 Manatu dauku populuari predika dezagun eta lekuko ager gaiten
hura dela Jainkoak bizien eta hilen Juje finkatu duena.
- 43 Profeta guziak lekuko ditu :
bekatuen barkamendua hari esker ukaiten dutela
haren baitan sinesten duten guziek.

9 (Jesusen heriotzea, Jainkoaren amodioaren froga)

Jondoni Paulok Erromanoeri

5,5-11

- Haurrideak,
5 Jainkoaren amodioa ixuria izan da gure bihotzetara
emana izan zaukun Izpiritu Sainduari esker.
- 6 Alabainan, oraino indar gabe ginelarik,
bere orenean Kristo hil da fedegabentzat.

- 7 Bai, nekez hil laiteke norbeit gizon zuzen batentzat ;
gizon on batentzat, balitake norbeitek hil nahi izaitea.
- 8 Bainan Jainkoak gure ganat duen maitasuna
argi erakusten dauku huntan :
gu oraino bekatoros ginelarik, Kristo guretzat hil baita .
- 9 Beraz, orai haren odolaz zuzen eginak girenaz geroz,
are gehiago salbatuak gira hasarretik.
- 10 Alabainan, etsai ginelarik, Jainkoarekin adixkidetuak izan bagira,
haren Semearen heriotzeari esker,
are gehiago adixkidetuak gaudelarik,
izanen gira salbatuak haren biziari esker .
- 11 Gehiago oraino, Jainkoa baitan dugu gure ohorea,
Jesu Kristo gure Jaunaren bidez,
haren bidez ardietsi baitugu orai adixkidetzea Jainkoarekin.

10

(Bekatua baino nasaia, grazia)

Jondoni Paulok Erromanoeri

5, 17-21

- Haurrideak,
17 bakar batek bekatu eginik, bakar haren gatik nausitu bada herioa,
zonbatez gehiago, grazia eta zuzentasunaren dohaina ukaiten dutenak
ez dira nausituko bizian, Jesu Kristo bakarraren gatik.
- 18 Beraz, baten bekatuak gizon guzieri
kondenamendua ekarri zioten bezala,
berdin baten zuzentasunak gizon guzieri
ekartzen diote bizirako zuzentasuna .
- 19 Alabainan, baten desobedientziaren gatik
guziak bekatoros gertatu ziren bezala,
berdin baten obedientziaren gatik, guziak zuzen gertatu dira.
- 20 Legea etorri zen, bekatua emenda zadin.
Bainan bekatua emendatu zenean, nasaia egin zen grazia ;
- 21 Bekatua herioaz nausi izan den bezala,
grazia ere , zuzentasunaz nausi izan dadin betiko bizirako,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

11

(Bataiatuen bizi berria)

Jondoni Paulok Erromanoeri 6,3-9

- Haurrideak,
3 Jesu Kristo baitan bataiatuak giren guziak,
haren heriotzean gira bataiatuak izan .
- 4 Bataioaz izan gira harekin ehortziak heriotzean :
Kristo hiletarik piztu den bezala, Aitaren ospeari esker
berdin guk ere bizi berri bat dezagun ereman.
- 5 Harekin bat eginak balin bagira
haren heriotzearen iduriko heriotze baten bidez,
bat izanen gira ere
haren piztearen iduriko pizte baten bidez.
- 6 Bai, badakigu gure lehengo gizona

harekin batean kurutzefikatua izan dela,
 bekatuzko izaitea izan zadin ezdeusetaratua,
 eta ez gaiten gehiago bekatuaren meneko izan .
 7 Alabainan, hila dena bekatutik libratua da.
 8 Bainan, Kristorekin hil balin bagira,
 sinesten dugu harekin ere biziko girela,
 9 baitakigu Kristo hiletarik piztua ez dela berriz hiltzen :
 herioak ez du gehiago eskurik haren gainean.

12 *(Gure gorputzaren piztearen beha gaude)*

Jondoni Paulok Erromanoeri

8,14-23

Haurrideak,
 14 Jainkoaren Izpirituak derabiltzan guziak,
 hek dira Jainko seme.
 15 Alabainan, ez duzue ukan esklabo bihotza,
 oraino ere beldurrean ibiltzeko ;
 bainan seme-bihotza duzue ukana,
 oihu eginarazten daukuna:" Abba, erran nahi baita : " Aita ".
 16 Izpiritua bera hor du lekuko gure bihotzak, Jainko seme girela.
 17 Seme, eta beraz ondoko,
 Jainkoaren ondoko, Kristoren ondorekide,
 harekin pairatzen balinbadugu, harekin ospean izaiteko.
 18 Ezen, daukat deus ez direla oraiko hersturak
 gure baitan agertu beharra den ospearen aldean.
 19 Izaite guziak, lehia kartsu batean,
 beha daude noiz agertuko diren Jainko semeak.
 20 Ez deusaren meneko jarria baita mundua,
 ez bere nahitara, bainan meneratu duenaren nahiz .
 Halere badauka esperantza
 21 bera ere aterako dela ustelduraren menetik,
 Jainko semeen libertatearen osperat heltzeko.
 22 Bai, badakigu izaite guziak orai arte auhen eta erdi-minetan direla.
 23 Ez hek bakarrik, bainan gu ere, Izpiritua hartzen hasiak girenak,
 gure baitan auhenez gaude,
 noiz izanen giren Jainkoaren seme,
 noiz salbatuko den gure gorputza.

13 *(Deusek ez gaitu Kristoren amodiotik berexiko)*

Jondoni Paulok Erromanoeri

8,31-35.37-39

Haurrideak,
 31 Jainkoa gure alde balinbadugu, nor izanen da gure kontra ?
 32 Ez du errefusatu bere Semea,
 bainan eman du osoki gu guzientzat :
 Nolaz ez dauzkigu denak emanen harekin batean ?
 33 Nor jazarriko zaiote Jainkoak hautetsieri,
 Jainkoa denean saindutsaile ?
 34 Nor ditake kondenatzaile, Jesu Kristo hil denaz geroz ?

Eta gehiago dena, piztu da,
 Jainkoaren eskuinean dago, eta gure alde mintzo
 35 Nork berexiko gaitu Kristoren amodiotik ?
 Nahigabeak ? hersturak ? jasaiten ditugunek ?
 goseak ? buluziak ? lanjerak ? ezpatak ?
 37 Ez, guzietan garraile ateratzen baigira,
 maitatu gaituen Hari esker .
 38 Badakit segur : ez herioak, ez biziak,
 ez aingeruek, ez nausiek, ez oraiko, ez geroko deusek,
 39 ez izarrek, ez zeruek, ez itsas-leizek,
 ez eta bertze edozoin kreaturek, deusek ez gaitu berexen ahalko
 Jesu Kristo gure Jaunaren baitan den Jainkoaren amodiotik.

14

(Jaunarentzat gira bizi eta hiltzen)

Jondoni Paulok Erromanoeri

14,7-9.10-12

Haurrideak ,
 7 gutarik nehor ez da beretzat bizi, ez eta nehor beretzat hiltzen.
 8 Bizi balin bagira, Jaunarentzat gira bizi ;
 eta, hiltzen bagira, Jaunarentzat gira hiltzen .
 Beraz, hilik, ala bizirik, Jaunarenak gira.
 9 Huna zergatik Kristo hil eta piztu zen,
 hilen eta bizen Jauna izaiteko .
 10 Denek Jainkoaren auzitegian agertu beharko dugu.
 11 Izkiriatura baitago : Bizi naiz, dio Jaunak,
 belaun guziak makurtuko zaizkit aintzinean,
 eta mihi guziek goretsiko dute Jainkoa .
 12 Beraz gutarik bakotxak bere buruaz kondu emanen dio Jainkoari.

15

(Hil guziak Kristoren baitan piztuko)

Jondoni Paulok Korintiarreri

1a : 15, 20-24.25-28

Haurrideak,
 20 hilen artetik atzarri da Kristo, lokartuak direneturik lehena.
 21 Gizon baten bidez etorri baitzen herioa,
 gizon baten bidez ere heldu da piztea.
 22 Alabainan, Adamen baitan dira hiltzen gizon guziak ;
 Kristoren baitan dira denak piztuko.
 23 Bainan bakotxa bere aldan : lehena, Kristo ,
 gero Kristorenak, berriz etorriko delarik.
 24 Gero izanen da akabantza,
 Kristok Jainko Aitari itzuliko diolarik erregetza.
 25 Errege izan behar baitu,
 etsai guziak bere zangopean ezarri arte.
 26 Eta azkenik errautsia izanen den etsaia, herioa.
 27 Alabainan, guziak haren oinpean ezarri ditu .
 Bainan, dena haren pean dagola, erraiten duenean,

28 ez du sartzen hor, gauza guziak pean ezarri diozkan hura.
 Gauza guziak bere menpean jartzen zaizkionean,
 orduan Semea bera ere menpean jarriko zaio,
 gauza guziak bere meneko ezarri diozkan Aitari ,
 Jainkoa izan dadin guzietan guzia.

16*(Herioa, nun duk hire bitoria ?)***Jondoni Paulok Korintiarreri**

1a : 15, 51-57

Haurrideak,
 51 huna, mixterio bat derautzuet :
 ez denak hilik ere, denak izaitez aldatuko gira,
 52 ixtant batez, begiak hets artean,
 azken egunean deiadarrak joko duelarik.
 Joko baitu deiadarrak, eta hilak piztuko dira ezin galduzko,
 eta gu, izaitez aldatuko gira.
 53 Ezen galkor denak behar du bilakatu ezin galduzko,
 eta hilkor denak ezin hila jauntzi .
 54 Azken egunean, gutan galkor dena bilakatuko da ezin galduzko,
 eta hilkor denak jauntzikiko du ezin hila.
 Orduan beteko da Liburu Sainduen errana :
 " Herioa iretsi du bitoriak.
 55 Herioa nun duk hire bitoria ? Herioa, nun duk hire eztena ?
 56 Herioaren eztena, bekatua, eta bekatuaren indarra, Legea
 57 Jainkoari eskerrak bitoria eman baitauku,
 Jesu Kristo gure Jaunaren bidez.

17*(Gure betiereko egoitza, Jaunaren ondoan)***Jondoni Paulok Korintiarreri**

2a :5, 1.6-10

Haurrideak,
 1 badakigu, gure lurreko egoitza, gorputza, suntsitu beharra dela,
 baina Jainkoak egiten daukula zeruetan
 betiereko egoitza bat, gizonen eskuz egina ez dena.
 6 Beraz, fidantziaz beteak gira, Jauna baitan,
 eta badakigu, gorputz huntan bizi gireno,
 Jaunaren ganik urrun gaudela desterruan ,
 7 sinestearen argitan baigabiltza, eta ez gure begiz ikusten.
 8 Fidantzia hortaz beteak gaudela,
 nahiago dugu gorputz huntarik atera, Jaunarekin bizitzeko.
 9 Horrengatik lehiatzen gira Jaunari atsegingarri izaiterat,
 bai gorputz huntan, bai gorputz huntarik kanpo.
 10 Guziek Kristoren auzitegian agertu behar baitugu,
 bakotxak har dezan , ona ala txarra,
 bere gorputzaren bidez egin duenaren arabera.

18

*(Kristok gure gorputza berearen iduriko eginen)***Jondoni Paulok Filipeko girixtinoeri**

3,20-21

Haurrideak,
 20 gure egoitza zeruetan dugu,
 handik igurikatzen baitugu Salbatzaile, Jesu Kristo gure Jauna
 21 Harek baitu gure gorputz ezdeus hau aldaturen
 bere gorputz loriosaren idurirat,
 gauza guziak bere meneko ezartzeko daukan ahalaz.

19

*(Jainkoak berekin hartuko gaitu)***Jondoni Paulok Tezalonikarrerri**

1a : 4,13-18

Haurrideak,
 13 ez zaituztegu jakingabeen utzi nahi azken loan daudenez,
 ez zaitezten dolu-minetan egon,
 esperantzarik ez duten bertzeak bezala.
 14 Jesus hil eta piztu dela sinesten badugu,
 berdin ere, Jesusen baitan lokartu direnak ,
 Jainkoak bereganatuko ditu harekin batean.
 15 Huna zer dautzuegun erraiten Jaunaren erranetik :
 gu biziak, Jauna etorri arte hemen beha gaudenak,
 ez gira hileri aintzinduko.
 16 Arkanjeluak dei egitearekin, eta Jaunak oihu,
 Jauna bera jautsiko da zerutik,
 eta Kristo baitan diren hilak piztuko dira lehenik.
 17 Gero, gu biziak, oraino hemen gaudenak,
 hedoietan gora heiekilan eremanak izanen gira Jaunaren biderat.
 Eta hala, betikotz Jaunarekin izanen gira.
 18 Hortakotz, erran horiekin altxa elgarren bihotzak.

20

*(Kristorekin biziko gira)***Jondoni Paulok Timoteori**

2a : 2,8-13

8 Orroitz zaite Jesu Kristoz : Dabiden odolekoa ;
 hiletarik piztua da, hortan da ene Ebanjelioa.
 9 Horren gatik dut pairatzen,
 gategiz lotua izaiteraino, gaixtagin baten pare.
 Bainan ez dago lotua Jaunaren hitza.
 10 Horra zergatik, oro jasaiten ditudan Jainkoaren hautetsientzat,
 ardiets dezaten heiek ere Jesu Kristoren baitan den salbamendua,
 betiereko loriarekin .
 11 Sinestekoa da hitz hau :
 " Harekin hil bagira, harekin biziko gira.
 12 Azkar irauten badugu, harekin errege izanen gira.
 Ukatzen badugu, harek ere ukatuko gaitu.
 13 Gu ez bagira leial, hura beti leial dago,
 ez baitezake harek bere burua uka ."

21

(Jainkoa ikusiko dugu den bezala)

Jondoni Joaniren lehen epixtolatik

3,1-2

- Maite maiteak,
 1 ikus-azue zonbateko amodioa eman daukun Aitak,
 gu Jainkoaren haurrak deituak izaiteko, eta hala gira.
 Munduak ez bagaitu ezagutzen, huna zergatik :
 Jainkoa ez baitu ezagutu.
 2 Maite maiteak, oraidanik Jainkoaren haur gira ,
 eta gero zer izanen giren ez da oraino ageri.
 Badakigu, Jainkoaren Semea agertuko denean,
 hura iduri izanen girela, hura ikusiko baitugu den bezala.

22

(Amodioak iragan-arazten biziraino)

Jondoni Joaniren lehen epixtolatik

3,14-16

- Maite maiteak,
 14 guk badakigu heriotik bizirat iraganak girela,
 anaiak maite ditugulakotz.
 Maitatzen ez duena, herioan dago,
 15 Bere haurridea hastio duena, gizon-hiltzaile da ,
 eta badakizue gizon-hiltzaileak ez duela
 bere baitan betiereko bizia .
 16 Huntan ezagutu dugu Jainkoaren amodioa :
 Harek eman baitu guretzat bere bizia ;
 guk, berdin bizia behar dugu eman haurridentzat.

23

(Dohatsu Jauna baitan hil direnak)

Jondoni Joaniren Apokalipza liburutik

14,13

- Egun heietan, entzun nuen mintzo bat zerutik heldu :
 Erraiten zerautan izkiriatzeko :
 " Dohatsu orai, Jauna baitan lokartzen diren hilak ,
 Bai, dio Jainkoaren Izpirituak,
 pausa ditela beren lanetarik ,
 jarraitzen baitzaizkiote beren obrak ."

24

(Hilak, beren obren arabera jujatuak)

Jondoni Joaniren Apokalipza liburutik

20,11-21,1

- 11 Nik, Joanik, ikusi nuen alki handi xuri bat
 eta han jarria zagona .

- Haren aintzinetik ihes joan ziren zerua eta lurra,
 hatzik utzi gabe.
- 12 Eta hilak ikusi nituen, handi eta ttipi, alki aintzinean xutik.
 Liburuak ideki ziren ;
 beste liburu bat ere ideki zen, Biziaren liburua.
 Heietan izkiriaturik jujatuak izan ziren hilak,
 nor bere egintzen arabera.
- 13 Itsasoak, bere barnean zauzkan hilak gibelerat bihurtu zituen.
 Herioak, eta haren lekuak ere , beren baitan zauzkatena,
 eta bakotxa bere egintzen arabera jujatua izan zen .
- 14 Orduan herioa eta haren lekua suzko leizerat amildu zituzten,
 (suzko leizea, bigarren heriotzea da).
- 15 Eta Biziaren liburuan izkiriaturik aurkitu ez ziren guziak
 suzko leizerat amilduak izan ziren .
- 21,1 ikusi nuen zeru berri bat, lur berri bat,
 lehengo zerua eta lehengo lurra itzaliak baitziren ,
 eta ez zen gehiago itsasorik.

25

(Jainkoaren egoitza gizonen artean)

Jondoni Joaniren Apokalipza liburutik

21,1-5.6-7

- Nik, Joanik,
- 1 ikusi nuen zeru berri bat, lur berri bat ,
 lehengo zerua eta lehengo lurra itzaliak baitziren,
 eta ez zen gehiago itsasorik ,
- 2 ikusi nuen hiri saildua , Jerusaleme berria,
 zerutik jausten Jainkoaren ganik,
 osoki ederra, iduri ezkont-berria bere senarrarentzat apaindua.
- 3 Eta entzun nuen mintzo azkar bat,
 Jainkoaren tronutik heldu, ziola :
 " Huna Jainkoaren egoitza gizonen artean.
 Heiekin egonen da eta hek izanen dira haren populu,
 eta hura, Jainkoa heiekin .
- 4 Nigar guziak begietarik xukatuko diozkate,
 eta ez da gehiago izanen heriotzerik ;
 eta nigar-garrasi eta atsegaberik ez da gehiago izanen ;
 lehengo gauzak itzali baitira.
- 5 Orduan tronuan jarriarik zaudenak erran zuen :
 " Huna nun gauza guziak berri egiten ditudan ."
- 6 Ni naiz alfa eta omega, hastapena eta azkena,
 Egarrri denari urririk emanen diot nik ura,
 biziaren iturritik.
- 7 Irabazleak hau izanen du sari :
 ni haren Jainko, eta hura nere seme .

IRAKURGAIEEN ARTEKO SALMOAK

22gn Salmoa

Leloak : 86 Jauna dut artzain, ez naiz egonen beharrean (24)

247 Ilunbez ala gaitz-erreketa joanik ere,
Nik ez beldurrik, hor baitzare , (133)

Jauna dut artzain : ez naiz egonen beharrean.
Zer gainetarat nerabilan
Ur bazterreko pausa lekurat banerama,
Pitz dakitan hor pitz arima

Haren ondotik bide zuzenez ni banoa :
Haren izena zoin gozoa.
Ilunbez ala gaitz-erreketa joanik ere
Nik ez beldurrik, hor baitzare ?
Zure begia , zure makila hor direno,
Badut nik bake, badut gozo.

Zuhauk dautazu ezartzen neri mahain xuri,
Etsai guzien harrigarri.
Ixurtzen duzu nere bururat usain ezti,
Basoan badut gaindiz gaindi.

Nik zoriona eta grazia ditut lagun,
Nere bizian gau et-egun .
Banago-eta Jaun zerukoa den etxean
Epe luzerik luzenean.

24gn Salmoa

Leloak: 154 Zu ganat daukat nere arima, Jainko Jauna (6, 19)

339 Zure begira daudenek, Jauna ,
Zoin argi duten azken eguna . (37)

Zer amodio duzun guretzat orroitz, Jauna,
Zer sekulako bihotz ona.
Ez gogoan har nere gazteko bekatuak ,
Nere gaitz ezin ukatuak.
Neurrigabeko bihotz onean har nezazu,
Osoki ona baitzare zu.

Nere barneko atsegabeak arin-zatzu,
Hersturetarik ken nezazu.

Beha zertan den nere ezina, nere mina ,
 Hobenak ahantz, barka dena.
 Begira zazu nere arima, hel ba, Jauna,
 Ez utz galtzerat zure dena.
 Hobengabeak eta zuzenak zain nezate ;
 Zuri nagola orroit zaite.

26gn Salmoa

Leloak 85 Jauna dut argi, Jauna geriza, ni nork izi ? (22)

13 Bai sekulako zutan, Jauna
 Dut gozatuko zoriona(101)

Jauna dut argi, Jauna geriza, ni nork izi ?
 Jauna dut lagun : nork behar nau ni dardarazi ?
 Hau dut Jaunari bakar bakarra hau galdea ,
 Haren etxean bizi naizeno egoitea .
 Haren gozoen gozoaz nadin beti goza,
 Begiz ikusiz Jainkoarena den egoitza.

Entzun Jainkoa, otoizka dagon nere boza ;
 Urrikal zaite, ihardets neri : otoi, mintza,
 Bihotza deika, beha ta beha banabila,
 Zure zeruko begitarte gaupetz bila .
 Etzadazu ba begitarte hola gorde ,
 Ez hasarrean zure zure hau utz debalde.

Badut sineste : ikusiko dut zoin den ona,
 Bizi direnen lurrean ona Jainko Jauna .
 Egon bakean Jaunaren beha ; izan gizon :
 Altxa bihotza eta Jaunaren beha egon.



41-42gn Salmoak

Leloak 27 Egarriz noa, deika noa
 Noiz ikus ote, noiz Jainkoa ? (118)

Orkatzak udan iturriraino zer lehia .
 Zu ganat, Jauna, nik ere dudan egarrria .
 Egarriz noa nik Jainkoa noiz ikus ote,
 Noiz egon hari noiz begitartez begitarte.

Joanen naiz joanen Jainko Jaunaren etxeraino,
 Bertzen artean dena irrintzin, laudorio.
 Argia eta egia igor aintzindari,
 Igan nakion egoitza duzun mendiari.

Jainko Jaunaren aldareari noakio,
Hartan baitut nik gazte-su eta bozkario.
Zu aipatzerat bai soinu eta kantuz noa
Nere Nausia, nere guzia, zu, Jainkoa .

Nere arima zertako zaude auhenetan ?
Zertako ibil tirabiraka nere baitan ?
Egon Jaunari zato, diogun berriz kanta,
Nere begiek nahi argia Jauna baita .

62gn salmoa


Lelo : Nere Jainkoa, zutaz egarri banabila . (9)

Nere Jainkoa, goizetik noa zure bila ,
Zutaz egarri banabila.
Lur agortua uriz egarri den bezala,
Ni zure minak nerabila.

Zauden etxean zu, Jauna, ikus zaitzadala,
Indarrez, ospez hoin zabala .
Bizia baino zure grazia gozoago ;
Zuri gogotik kantuz nago.

Jaun izenari nere bizian laudorio ;
Eskuak luze nagokio.
Nere arimak Jauna du Jauna gozoz gozo :
Nere ezpainen bozkario.

Izan zare zu nere laguntza gal-bidean :
Gostuz nagozu hegalpean.
Nere arima badago tinki zu ondoan,
Atxik beti ni zuk eskuan .



102gn Salmoa

Leloak : 77 Jainkoak badu bihotz on eta urrikalmendu (29,34)

259 Jainkoa ganik gizon zuzenek salbamendu . (9)

Ona da Jauna eta guzien urrikari,
Ez hasarrekor bainan bihotzen altxagarri.
Gaizkien arau ez zaiku Jauna nehoiz ari,
Ez eta ere hobenen arau lotzen guri.

Nola baitio aita behatzen semeari,
Hala da Jauna Jainkozaleen urrikari .

EBANJELIO AINTZINEKO KANTUA

- 1 Eskerrak zuri, Jainko Aita,
Zeru-lurren Jaun betikoa,
Haur ttipieri baititutzu
Erresumako mixterioak agertuak.
- 2 Nere Aitaren maiteak etor, sar zeruan ,
Mundu hastetik zuentzat daukan Erresuman .
- 3 Hain du Jainkoak gure mundua maite izan,
Nun baitu bere Seme Bakarra berak eman,
Ez dadien gal fede duena haren baitan,
Bainan bai bizi betierekoa izan dezan.
- 4 Bere nahia Aitak hau du :
Emanetarik nik ez dezadan nihor galdu.
Bainan bai azken egunean,
Hilen artetik berriz dezadan xutik eman.
- 5 Bere nahia, Aitak hau du :
Fede duena betirako biziratu .
Nihaurek azken egunean,
Hilen artetik berriz behar dut xutik eman.
- 6 Ni naiz piztea eta ni bizia,
Ez da hil beharko sekulan nitan fede.
- 7 Egoitza eta bizitzea
Oraitik dugu zeruetan.
Handik ere bai gaude beha,
Guk Salbatzaile dugun Kristoren igurikan.
- 8 Balin bagira gu Kristorekin orai hiltzen,
harekin gira gu biziko .
Balin badugu gaur Kristorekin guk jasaiten ,
harekin gu Jaun eta Jainko.
- 9 Hilen artetik sortuetan zu, Kristo , lehen :
Zuri goresmen, betiko indar. Amen amen.
- 10 Jaunaren baitan hil diren hilak : dohatsuak.
Lan, neketarik daudela orai baketuak.
Egin dituzten lan guziak Ez baititazke ahantziak.
- 11 Gure bihotzak zabal, Jauna,
Sinets dezagun zure Semeak derraukuna.

EBANJELIOAK

1 (Dohatsuzeruetako Erresuma)

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Matiuren liburutik

5,1-12

- Egun hartan,
1 Jende osteak ikustean, Jesus mendirat igan zen,
eta jarri zelarik, hurbildu zitzaizkon bere dizipuluak.
2 Ahoa idekirik, hasi zitzaioten erakaspen emaiten, erranez :
3 " Dohatsu bihotz barnez behartsu direnak,
heiena baita zeruetako Erresuma.
4 Dohatsu eztiak, lurraz jabetuko baitira,
5 Dohatsu nigarretan direnak,
kontsolamendu izanen baitute.
6 Dohatsu zuzentasun gose eta egarri direnak,
asea ukanen baitute .
7 Dohatsu urrikalkorrak, urrikalmendu ardietsiko baitute.
8 Dohatsu bihotz garbiak, Jainkoa ikusiko baitute .
9 Dohatsu baketiarrak, Jainkoaren seme deituak izanen baitira.
10 Dohatsu zuzentasunaren gatik gaizki erabiliak direnak,
heiena baita zeruetako Erresuma.
11 Dohatsu zuek laidozatu eta gaizki erabiliko zaituztenean,
bai eta gezurka belztuak izanen zireztenean nere gatik:
12 Bozkaria eta loria zaitezte, nasaia baituzue saria zeruetan.

2 (Jainkoak ttipieri agertzen bere segetuak)

Jesu Kristoren Ebanielioa jondoni Matiuren liburutik

11,25-30

- Egun hartan,
25 Jesus mintzatu zen erranez :
" Gora zu, Aita, zeru-lurren Jauna,
gauza horiek gorde baitituzu zuhur eta jakintsuneri,
eta haur ttipieri agertu .
26 Bai, Aita, hola nahi izan duzu.
27 Denak eman dauzkit Aitak ;
nehork ez du ezagutzen Semea, Aitak baizik,
eta nehork ez du ezagutzen Aita, Semeak baizik,
eta Semeak argitu nahiko duenak,
28 Zatozte ni ganat nekatuak eta lehertuak,
eta nik arinduko zaituztet.
29 Harrazue ene uztarria, eta ikas ene ganik :
ezti eta bihotz umil bainaiz,
eta aurkituko duzue atsedeen zuen arimentzat .
30 Gozoa baita nere uztarria, eta arina nere zama.

3

(Huna jaun esposa heldu : zoazkiote biderat)

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Matiuren liburutik

25,1-13

- Egun hartan,
 Jesusek erran zioten bere dizipulueri parabola hau :
 1 " Zeruetako Erresuma hamar neskaten iduriko izanen da :
 hauk, beren argiak harturik,
 atera baitziren jaun esposaren biderat ,
 2 Heietarik bortz zentzugabeak ziren, eta bortz zentzudunak.
 3 Zentzugabeek argiak hartu zituzten, baina olirik ez ;
 4 zentzudunek aldiz, argiekin olia hartu zuten beren untzietan.
 5 Jaun esposak berantzen baitzuen,
 loaletu ziren guziak eta lokartu.
 6 Gauerditan oihu bat :
 " Huna jaun esposa heldu , zoazkiote biderat ."
 7 Jeiki ziren orduan neskatxa hek oro,
 eta prestatu zituzten beren argiak.
 8 Zentzugabeek erran zioten zentzuduneri :
 " Zuen oliotik emaguzue, hiltzen baitzaizkigu argiak ."
 9 Baina zentzudunek ihardetsi zioten :
 " Ez ginuke aski zuen eta guretzat ;
 Zoazte izaitekotz saltzailetarat, eta eros zuentzat ."
 10 Bada, erosterat zoatzilarik, etorri zen jaun esposa.
 Prest zirenak sartu ziren harekin ezteietarat ;
 eta hetsi zen atea.
 11 Geroxago heldu dira bertze neskatak ere, diotela :
 " Jauna, Jauna, idekaguzu,"
 12 Baina harek ihardetsi :
 " Egiaz derautzuet, ez zaituztet ezagutzen."
 13 Zaudezte beraz atzarririk,
 ez baitakizue ez eguna, ez orena ."

4

(Azken jujamendua)

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Matiuren liburutik

25,36-41

- Egun hartan,
 Jesusek erran zioten bere dizipulueri :
 31 " Etorriko denean Gizonaren Semea bere ospean,
 eta aingeru guziak harekin,
 orduan jarriko da bere ospezko alkian.
 32 Gizalde guziak bilduko dira haren aintzineran ;
 eta batzuek bertzetarik berexiko ditu,
 artzainak ardiak akerretarik berexten dituen bezala,

- 33 ardiak emanen ditu bere eskuinean,
akerrak aldiz ezkerrean.
- 34 Orduan Erregeak erranen diote bere eskuinekoeri :
" Zatozte , nere Aitaren benedikatuak,
eta harrazue
munduaren sortzetik zuentzat apailatua dagon erreinua .
- 35 Ezen, gose izan naiz, eta eman dautazue jaterat ;
egarri , eta edaterat eman ;
arrotz , eta etxerat hartu nauzue ; biluzia, eta beztitu ;
eri eta ikusten izan zaizkidate ;
preso, eta jin zirezte ni gana,"
- 37 Orduan ihardetsiko diote justuek , erranez :
" Jauna, noiz ote ikusi zaitugu gose, eta jaterat eman ?
Egarri, eta edaterat eman ?
- 38 Noiz ikusi arrotz, eta etxerat hartu ? Biluzia , eta beztitu ?
- 39 Noiz ikusi zaitugu eri edo preso, eta jin ikustera ?
- 40 Eta Erregeak ihardetsiko diote :
" Egiaz derautzuet :
ene haurrideak diren xumeen horietarik bati
egin duzuen aldi guzietz, eni dautazue egin ."
- 41 Orduan erranen diote ezkerrekoeri :
" Zoazte nitarik urrun, madarikatuak,
debruaren eta haren aingeruentzat
apailatua den betiereko surat.
- 42 Ezen, gose nintzen, eta ez dautazue eman jaterat ;
egarri , eta ez edaterat eman ;
- 43 arrotz nintzen, eta ez nauzue etxerat hartu ;
biluzia, eta ez beztitu ;
eri eta preso, eta ez zaizkitet jin ikustera."
- 44 Orduan ihardetsiko diote heiek ere :
" Jauna, noiz ikusi zaitugu gose eta egarri,
arrotz eta biluzia, eri edo presondegian ,
eta ez gira zure zerbitzuko jarri ?"
- 45 Orduan ihardetsiko diote :
" Egiaz derautzuet :
xumeen horietarik bati egin ez duzuen aldi guzietz,
eni ere ez dautazue egin ."
- 46 Eta horiek joanen dira betiereko gaztigurat,
justuak aldiz, betiereko bizirat "

5

(Jesusen heriotzea eta piztea)

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Marken liburutik15 , 33-39; 16,1-6
(laburra : 15,33-39)

- 33 Eguerdi irian, Ilunbea egin zen lur guziaren gainean,
hiruak arteraino.
- 34 Eta hiru orenetan, Jesusek oihu handi batean erran zuen :
" Eloi, Eloi, lama zabaktani »

erran nahi baita :

" Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zergatik utzi nauzu ? »

35 Han zirenetarik batzuek, hori entzutearekin, zioten:

" Horra non Eli profetari ari zaion oihuka ."

36 Gizon bat joan zen lasterka pustuka bat ozpin-urez bustitzerat,
eta kanabera baten muturrean ezarririk,
edaterat emaiten zion, erranez:

" Hea, ikus, Eli etorriko zaionez hortik jausterat ."

37 Bainan Jesusek oihu handi bat eginik, eman zuen azken hatsa.

38 Tenploko oihala erditik urratu zen, gainetik beheraino.

Jesusen aintzinean zagon ehuntariak ,
ikusi zuelarik nola hil zen, erran zuen:

" Zinez gizon hau Jainko- seme zen ."

1 Larunbata iragan zenean ,

Maria Madalena, Maria Jakesen ama eta Zalome

izan ziren usain gozoen erosten, Jesusen gorputza gantzutzeko.

2 Goizean goizik, asteko lehen egunean,

joan ziren hobirat, iguzkia agertu orduko .

3 Elgarri zioten :

" Nork aldaratuko dauku harria hobiaren ahotik ?

4 Begiak altxaturik, ohartu ziren aldaratua zela harria,
alta gaitzekoa zen .

5 Hobian sarturik orduan,

ikusi zuten gizon gazte bat eskuinetarik jarria ,
soineko xuriz jauntzia,
eta harritu ziren.

6 Hunek erran zioten :

" Ez ikara.

Jesus Nazaretarra bilatzen duzue, kurutzean itzatu hura :
piztua da , ez da hemen, huna nun zuten ezarria ."

6

(Naimeko alargunaren semearen piztea)

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Luken liburutik

7, 11-17

Egun hartan,

11 bazoan Jesus Naim deitu hirirat,

eta harekin zoatzin dizipuluak eta jendeketa handia.

12 Hiriko aterat hurbildu zenean ,

huna hil bat zeramatela, bere amaren seme bakarra ,
eta alarguna zen ama ,

eta hiritik zernahi jende bazen harekin.

13 Ikusi zuenean, Jauna urrikaldu zitzaion ,
eta erran zion :

" Ez nigar egin . "

14 Hurbildurik, kutxa hunki zuen.

Hilketariak gelditu ziren , eta Jesusek erran zuen:

" Gizon gaztea, nik derautzut , xuti !"

- 15 Jeikirik orduan, hila jarri zen eta mintzatzen hasi ,
eta Jesusek eman zion amari.
- 16 Laztura batek hartu zituen guziak,
eta goersten zuten Jainkoa, erranez :
" Profeta handi bat agertu zaiku ,
eta jautsi zaio Jainkoa bere jendeari."
- 17 Hartaz zioten solas hori
Judea osoan eta inguru herri guzietan zabaldu zen.

7 (Egon erne eta prest, Jaunaren beha)

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Luken liburutik

12, 35-40

- Egun hartan, Jesusek erran zioten bere dizipulueri:
- 35 "Zaudezte gerrikoa gerrian, eta argia eskuan.
36 Izan zaitezte nausia ezteietarik noiz etorriko den
beha dauden mutilak bezala,
etorri eta , jotzen dueneko , idek diezoten .
- 37 Dohatsu mutil horiek,
nausiak, etortzean, atzarririk kausituko dituenak;
Egiaz derautzuet , bere gerrikoa soinean jauntzi eta ,
mahainean jar-araziko dituela,
eta bera zerbitzatzen hasiko zeila.
- 38 Heldu bada gauerditan, edo berantago ,
eta hola kausitzen baditu, dohatsu hek .
- 39 Jakizue hau:
balaki etxeko nausiak zoin tenorez etortzekoa den ohoina,
atzarririk lagoke, eta ez lezake utz bere etxearen zilatzerat.
- 40 Zuek ere , zaudezte prest,
uste ez duzuen tenorean etorriko baita Gizonaren Semea . »

8 (Ohoin ona)

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Luken liburutik

23, 33.39-40

- 33 Etorri zirelarik Buru-hezur edo Galbario deitu tokira,
kurutzefikatu zuten Jesus bi gaixtaginekin,
bat eskuinean eta bertzea ezkerrean.
Gurutzetik dilindan zauden gaixtaginetarik bat ahopaldika ari zitzaion :
" Ez ote haiz Kristo ? Salba zak hire burua, eta gu hirekin."
- 40 Bertzeak aldiz erasiatuz, erraiten zion :
" Hik ere ez duk beraz Jainkoaren beldurrik ?
gaztigu bera jasaiten eta.
- 41 Gurea zuzena duk ,
Gure egintzek merezitu saria hartzen baitiagu .
hunek aldiz, deus gaizkirik ez dik egin . "
- 42 Eta erraiten zuen :
" Jesus, orroiti nitaz,

zure erresuman etorriko zirelarik . "

43

Jesusek ihardetsi zion :

" Egiaz derautzut, egun enekin izanen zira parabisuan".

9

(Jesusen heriotzea eta piztea)

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Luken liburutik

23, 44-49;24 1-6

Laburra : 23, 44-49

44

Jadanik eguerdi zen nunbeit han,

Eta ilunbea egin zen lur guziaren gainean hiruak arte,
iguzkia gorderik .

45

Tenploko oihala erditik urratu zen.

46

Orduan Jesusek oihu handi batean erran zuen :

" Aita, zure eskuetan emaiten dut ene izpiritua".

Eta horiek erraitean, eman zuen azken hatsa.

47

Ehuntariak, gertatu zena ikusirik, Jainkoa goretsi zuen, erranez :

" Egiazki zuzena zen gizon hau ."

48

Han bilduak ziren ikusle guziak ,

gertatuak ikusirik , bazoatzin bularrak joz.

49

Jesusen ezagunak aldiz urruntxago zauden,

eta ere Galileatik jarraitzen zitzaizkion emazteak ,
han beha zaudenak .

(irakurgai laburrean hemen geldi.)

1

Astearen lehenbiziko egunean, goizean goizik ,

hilhobirat joan ziren emazteak ,

prestaturik zauzkaten gantzu usain gozodunak hartu eta.

2

Harria hil hobitik baztertua aurkitu zuten .

3

Sartu ziren ,

eta Jesus Jaunaren gorputza etzuten han aurkitu .

4

Zer ote zitaken etzakitelarik ,

hara bi gizon heien aintzinean, soinekoak dirdiran.

5

Emazteak ikaraturik, eta begiak lurrerat so baitzauden ,
heiek erran zioten :

" Zer zabiltzate, hilen artean bizi denaren bila ?

6

Ez dago hemen, piztu da .

10

(Emauzeko dizipuluak)

laburra : 24, 13-16, 28-35

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Luken liburutik

24,13-35

13

Jesus hil eta hirugarren egunean ,

bi dizipulu bazoatzin Emauz deitu herrixka batetarat ,

Jerusalemetik bi orenen bidean .

14

Eta elgarrekin mintzo ziren gertatu guziez.

Solasean eta eztabadan ari zirelarik,

Jesus bera hurbildu zitzaioten, eta bazoan heiekin batean.

16

Bainan heien begiak itsu zauden, eta etzuten ezagutzen .

17

Jesusek erran zioten :

" Zertaz mintzo zinezten bidean ?

- 18 Zoin ilun zinezten . "
- Heietarik batek, Kleofas deituak, ihardetsi zion :
 " Jerusalemen zirenetarik segur bakarra zira
 egun hautako gertakarien berri ez dakiena".
- 19 Erran zioten :
 " Zer ote ? "
- Heiek orduan :
 " Jesus Nazaretarrari gertatua :
 gizon hori profeta bat zen, obrak eta elez indartsua ,
 Jainkoaren eta populu guziaren aintzinean.
- 20 Apez nausiek eta gure aintzindariak eman dute
 hiltzerat kondenatzeko , eta kurutzefikatu dute.
- 21 Guk aldin, baginuen ustea
 hura zela Izrael libratu behar zuena.
 Bainan, horiek hola, hirugarren eguna da
 horiek gertatu direla.
- 22 Haatik gutarteko emazte batzuek harritu gaituzte :
 argia gabe, hobirat izan dira
- 23 eta haren gorputza ez kausitu ;
 bai eta etorri, erranez agertze bat ukan dutela
 aingeruak ikusi, Jesus bizi dela baitzioten .
- 24 Joan dira gurekilako batzu hobirat ,
 bai eta kausitu emaztek erran bezal-bezala ,
 bainan hura ez ikusi . "
- 25 Jesusek orduan erran zioten :
 " Oi zentzu gabeak . Zoin nagia den zuen bihotza
 profetek aipatu guzien sinesteko ;
- 26 Kristok ez zituena bada horiek oro jasan behar
 bere ospean sartzeko ?"
- 27 Bai eta Moisetik haste, eta, profeta guzietarik,
 argitaratu ziozkaten Liburu saindu guzietan hartaz erranak.
- 28 Zoatzin herrixkarat hurbiltzean,
 Jesusek egin zuen alegia eta aintzinat joaiki.
-
- 29 Bainan geldiarazi beharrez ari ziren, erranez :
 " Zaude gurekin, iluntzerat baitoa,
 eta eguna jadanik apaldua ."
- Sartu zen orduan heiekin egoiteko.
- 30 Heiekin mahainean jarri zelarik,
 ogia hartu zuen, eskerrak bihurtueta,
 zatitu zuen , eta heieri eman.
- 31 Begiak ideki zitzaizkoten orduan, ezagutu baitzuten ,
 eta hura itzali zitzaioten.
- 32 Elgarri erran zuten orduan :
 " Ez ginuena gure baitan bihotza sutan ,
 bidean mintzo zitzaikularik ,
 eta Liburu sainduak argitzen zauzkularik ?
- 33 Eta xutiturik, ordu berean itzuli ziren Jerusalemerat :
 han bilduak kausitu zituzten hameka apostoluak
 eta heiekilakoak, ziotela :

34 " Jauna egiazki piztu da eta agertu zaio Zimuni ."
 35 Eta heiek kondatu zituzten bidean gertatuak
 eta nola ezagutu zuten , ogia zatitu zuenean.

11

(*Fedea duenak ardiesten du betiereko bizia*)

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik

6,37-40

Egun hartan, Jesusek erran zioten jenderi :

37 " Aitak neri eman guziak, nere ganat etorriko dira;
 eta ene ganat heldu dena, ez dut kanporat aurtikiko.
 38 Ezen, zerutik jautsia naiz, ez nere nahia egitea gatik,
 bainan ni igorri nauenaren nahia .
 39 Huna bada ni igorri nauen Aitaren nahia :
 harek eman guzietarik ez dezadan bat ere gal ,
 bainan guziak pitz ditzadan azken egunean.
 40 Ezen hau da nere Aitaren nahia:
 Semea ikusten duenak eta hartan sinesten,
 ukan dezan betiereko bizia ;
 eta nik piztuko dut azken egunean .

12

(*Betiereko biziaren ogia*)

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik

6,51-58

Egun hartan, Jesusek erran zioten Judueri :

51 " Ni naiz ogi bizia, zerutik jautsia.
 Ogi huntarik jaten duena biziko da betiere.
 Eta nik emanen dutan ogia, nere haragia da,
 munduaren bizitzerako.
 52 Juduak elgarrekin eztabadan ari ziren, ziotela :
 " Nola diezaguke hunek bene haragia jaterat eman ?"
 53 Orduan, Jesusek erran zioten :
 " Egiaz, egiaz derautzuet :
 Ez baduzue jaten Gizonaren Semearen haragia,
 eta edaten haren odola,
 ez duzue bizia zuen baitan
 54 Nere haragia jaten eta nere odola edaten duenak
 badu betiereko bizia ;
 eta nik piztuko dut azken egunean.
 55 Alabainan, nere haragia egiazko janaria da ,
 eta nere odola egiazko edaria
 56 Nere haragia jaten duena eta nere odola edaten,
 ni baitan dago, eta ni haren baitan.
 57 Bizia den Aitak ni igorri nauen bezala
 eta ni Aitaz bizi naizen bezala ,
 halaber, ni jaten nauena nitaz biziko da,
 58 Hau da zerutik jautsi ogia :

ez zuen aitek jan zutena bezalakoa, hil baitziren ;
ogi hau jaten duena, biziko da betiere.

13

(*Ni naiz Piztea eta Bizia*)

Jesu Kristoren Ebanjelioa Jondoni Joaniren liburutik

11,17-27

- 17 Betanariat jin zelarik,
Jesusek kausitu zuen Lazaro
 lau egun hartan hobian ezarria.
- 18 Betania Jerusalemetik hurbil zen, oren erditsu baten bidean.
- 19 Ainitz Judu baziren beraz Marta eta Mariaren ganat etorriak,
 anaiaren galtzeaz kontsolatzerat.
- 20 Jesus heldu zela entzun orduko, Marta joan zitzaion biderat;
 Maria aldiz etxean zagon .
- 21 Martak erran zion Jesusi :
 " Jauna, hemen izan bazine, etzen hilen ene anaia.
- 22 Bainan badakit zuk Jainkoari edozer galda
 eta Jainkoak emanen dautzula . "
- 23 Jesusek ihardetsi :
 "Piztuko da zure anaia . "
- 24 Martak berriz :
 " Badakit piztuko dela azken egunean, hilen piztean"
- 25 Jesusek orduan :
 " Ni naiz piztea eta Bizia.
 Nitan sinesten duena, hilik ere , biziko da;
- 26 Eta, nitan sinetsiz bizi dena, ez da hilen sekulan.
 Sinesten duzu hori ?
- 27 Harek berriz
 "Bai, Jauna, sinesten dut
 zu zirela Kristo , Jainkoaren Semea
 mundu huntarat etortzekoa dena . "

14

(*Lazaroren piztea*)

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik

11,32-45

- 32 Egun hartan,
Maria, Lazaroren arreba, Jesus zagon tokirat etorri zenean,
hura ikusi orduko, oinetarat erori zitzaion, erranez :
 " Jauna, hemen izan bazine, etzen hilen ene anaia."
- 33 Nigarrez hipaka ikusi zuelarik Maria ,
 nigarrez ere harekin ziren Juduak ,
Jesus hunkitua izan zen eta inarrosia bere baitan.
- 34 Erran zuen :
 " Nun emana duzue ? "
- Ihardetsi zioten:

- " Jauna, zato ikusterat".
 35 Eta Jesusek nigar egin zuen.
 36 Juduek orduan :
 "Beha zoin maite zuen".
 37 Heietarik zonbeitek aldiz zioten :
 "Hunek itsuari begiak ideki baititu ,
 ez ote zezaken hau hiltzetik begira ?"
 38 Jesus, berriz ere barnea inarrosia,etorri zen hobirat.
 Harpe bat zen, harri lauza bat emana gainetik.
 39 Jesusek erran zuen :
 " Ken zazue harria . "
 Martak hilaren arrebak, erran zion:
 " Jauna, jadanik usaindua da ,
 laugarren eguna du alabainan. "
 40 Orduan, Jesusek Martari :
 " Ez ote dautzut erran, sinesten baduzu
 Jainkoaren ospea ikusiko duzula ?"
 41 Kendu zuten beraz harria .
 Eta Jesusek, begiak goiti altxaturik, erran zuen :
 "Eskerrak zuri, Aita, entzun nauzulakotz,
 42 Nik badakit bai, beti entzuten nauzula ,
 bainan inguruan dutan jendearen gatik naiz hola mintzo
 sinets dezaten zuk igorria naizela. "
 43 Hori erran eta, boz ozen batekin oihu egin zuen:
 « Lazaro, zato kanporat ».
 44 Eta hila ateratu zen ,
 zango besoak oihal xerrendez lotuak ,
 eta begitartea hil-mihiseaz inguratua.
 Jesusek erran zioten :
 « Libra zazue eta utz joaiterat »
 45 Maria eta Martaren ganat etorri Judu heietarik ainitzek ,
 Jesusek zer egin zuen ikustearekin ,
 sinetsi zuten haren baitan.

15

(Hiltzen den ogi bihiak ekartzen bihi)

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik

12,23-28

- Egun hartan , Jesusek erran zioten bere dizipulueri :
 23 " Etorria da tenorea, Gizonaren Semea goretsi beharra baita.
 24 Egiaz, egiaz derautzu :
 ogi bihia lurrerat erori-eta hiltzen ez balinbada,
 bakarrik gelditzen da ;
 Hiltzen bada aldiz, bihia ausarki ekartzen du .
 25 Bere burua maite duena, galtzen da ;
 mundu huntan bere burua hastio duena,
 begiratuko da bizitze betierekotzat.
 26 Nork ere zerbitzatu nahi bainau, jarraik bekit ;
 eta ni non ere bainaiz, han ere izanen da ene zerbitzaria.

- 27 Nork ere zerbitzatzen bainau, hura ene Aitak sariztatuko du.
 Orai durduzatua dut arima. Eta zer erran ?
 Aita , atera nezazu oren huntarik ?
 Bainan, hortako naiz oren huntarat heldua.
 28 Aita gorets zazu zure izena „"
 Zerutik etorri zen orduan mintzo bat :
 " Goretsi dut, eta goretsiren berriz ere".

16

(Aitaren etxean bada toki gureztat)

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik

14,1-6

- Egun hartan,
 Jesusek erran zioten bere dizipulueri :
 1 " Ez dadila asalda zuen bihotza.
 Sinesten duzue Jainkoa baitan, nitan ere sinets-azue.
 2 Ene Aitaren etxean toki asko bada ;
 bertzela erranen ote nautzuen :
 ' Banoa zueri tokiaren egiterat '
 3 Joan ondoan, zueri tokia egin-eta,
 berriz etorriko naiz eta nerekin hartuko zaituztet ;
 ni nagon toki berean, zuek ere egon zaitezten.
 4 Ni noan tokirako bidea badakizue.
 5 Tomasek erraiten dio :
 " Jauna, ez dakigu norat zoazin, nola dakikegu bidea ?"
 6 Jesusek erraiten dio :
 " Ni naiz Bidea, Egia eta Bizia ;
 nehor ez doa Aitaren ganat, ene bidez baizik »

17

(Jesusek berekin nahi gaitu zeruan)

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik

17, 24-26

- Bere Aitaren ganat itzuli aintzin,
 Jesusek otoitz hau egin zuen :
 24 " Aita, nahi dut, zuk eman dauzkitazunak
 ni naizen tokian nerekin egoitea ,
 ikus dezaten eman dautazun ospea,
 maitatu bainauzu mundua egin aintzin.
 25 Aita zuzena, munduak ez zaitu ezagutu,
 nik aldiz, ezagutu zaitut,
 eta hauiek ezagutu dute zuk igorri nauzula.
 26 Zure izena ezagut-arazi diotet,
 bai eta ezagutaraziko :
 zuk enetzat duzun amodioa heietan izan dadin,
 eta ni heien baitan ."

FEDEDUNEN OTOITZA

90 **Beti bezala, apezak egiten du hasteko deia eta bururapen-otoitza.
Hizlariak erraiten ditu xedeak, eta jendeak usaiako ihardespena.**

91 **Gure nahigabeen bat gaudela,
bat izan gaitezela ere gure otoitzetan ...**

X. **I...** zenarentzat,
ezagutu eta maitatu ditugun hil guziendako,
egin dezagun otoitz

Egun doluan ditugun adixkidentzat,
nigarretan dauden guzientzat ...

Sofritzen eta kuraia galdu dutenentzat,
beren laguntzeko nehor ez dutenentzat...

Gure anaiak diren gizonendako,
bertzen laguntzen ari diren guziendako.

Hilen piztean sinesten dutenentzat,
egiaren bila dabilzanentzat...

Hemen bilduak girenentzat,
eta maite ditugun guzientzat...

Ot **Jauna, zuk gizonak maite baitituzu,
egizu, Elizaren otoitza balia dadin
bizien eta hilen salbamendurako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

92 D. **Fidantzia oso batean, otoitz egin diezogun
Aita guziz boteretsuari,
bere Seme bakarra, Jesus Jauna,
hiletarik piztu duen Jainkoari.**

X. Gure hilarentzat, ukan dezan leku,
Aitaren etxean betiereko bizian.

Hemen bilduak girenentzat,
gure fedea izan dadin pena baino azkarrago,
eta gure dolua esperantzaz betea.

Pairamen eta penetan direnentzat,
ez dezaten behinere uste izan Jainkoak ahanzten dituela...

Gizon guzientzat,
mundu huntan ereman dezaten beren bizia,
beti anaitasun eta zuzentasun gehiagorekin...

Elizarentzat, munduari ager dezon
Kristo dela bizien eta hilen Jaun ta Nausia

Ot. **Gizon guziak salbatzen baititzutzu, Jauna,
eta ez baituzu nahi bat ere gal dadin,
entzun, otoi, zure herriaren galdeak .
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

93

**Elgarrekin entzun dugu Jainkoaren Hitza,
esperantza sor-arazten baitauku bihotzean :
Denek batean egin dezagun orai otoitz.**

X. Jainkoak onhar dezan **I....** zena
zorion argi ta bakezko egoitzan...

Jaunak bere amodioa erakuts dezoten
penetan diren guziera

Girixtinoak begira ditzan azkar fedean eta esperantzan....

Gizon guziak hel-araz ditzan egiazko bake ta anaitasunerat..

Guziak bil gaitzan egun batez Piztearen bozkarioan ,
gure aintzinean joanak ditugun guziekin....

Ot **Jesus Jauna, hemen zaude
zure izenean bilduak diren fededunen artean :
entzun heien otoitzak,
eta ihardets, otoi, heien galdeerri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

94 D

**Jesu Kristo hilen artetik piztu zuen
Jainko Aita guzieldunari otoitz egin diezogun federekin
bizien eta hilen salbamendurako.**

X. Hil hunentzat : bataio sailduan betiko biziaren hazia
hartu zuen ; Jaunak eman diezogun sailduekin bizitzea....

Hil hunentzat : Kristoren gorputza,
betiko bizia emaiten duen ogia jan du ;
Jaunak azken egunean pitz dezan....

*Apeza
bada*

Hil hunentzat : Eliza sailduan bere apeztasuna bete du ;
Jaunak zeruko elizkizunetan sar dezan

Gure haurride, ahaide eta ongi-egilentzat :
Jaunak beren lanen saria eman dezoten....

Pizteko esperantzan lokartu diren guzientzat :
Jaunak bere aurpegiaren distiraz argi ditzan

Sinestean eta maitasunean hemen elgarrekin bilduak girenentzat:
Jaunak zeruetako Erreinuan ere bil gaitzan ...

- Ot. **Gure otoitzak, Jauna,
on egin dezotela zure zerbitzarieri :
Aterazkitzu beren bekatu guzietarik,
eta emozute betiereko salbamendua .
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez .**
- 95 D. **Haurrideak, elgarrekin otoitz egin dezagun
ez bakarrik gure haurride hil hunentzat ,
bainan Elizarentzat ere,
munduaren bake ta gure salbamenerako.**
- X. Elizako artzain guzientzat : hitzez erakusten dutena,
egintzetan ere bete dezaten .
Gure buruzagi guzientzat :
zuzenbidearen eta bakearen alde lehia ditezen....
Gorputzeko oinazetan eta arimako atsegabetan daudenentzat :
ez dezaten behinere uste izan
Jainkoak bere eskutik utzi dituela.
I... gure adixkidearentzat : Jainkoak begira dezan
ilunbearen erresumatik eta oinazen tokitik
.... Urrikaldurik, bekatu guziak barka dietzon
..... Bakearen eta argiaren lurraldean bere ondoan har dezan
..... Zeruko saildu guziekin batean sar-araz dezan
Gure ahaide eta ongi-egile hilentzat :
bere aintzaren argitan onhar ditzan ...
Fededun hil guzientzat : zeruetan sartzea eman dezoten...
- Ot. **Fededun guzien Egile ta Erosle ziren Jainkoa,
eman zure zerbitzarieri bekatu guzien barkamena,
gure otoitzeri esker ardiets dezaten
zure ganik igurikatzen duten urrikalmendua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez**
- 95bis D. **Haurride maiteak, Jainko Aita guziz urrikaltsuari
egin diezogun otoitz, Kristo baitan hil diren guzientzat.**
- X. Zure bihotz onean barka-zkitzute beren bekatuak .
Begi onez ikus heien obra onak,
Har-zkitzu denak betiko bizitzean
Egin dezagun otoitz hil hunen gatik atsegabeen daudenentzat :
Emozute kontsolamendu beren atsegabeen....
Zure maitasunaren gozoaz, arin zazu heien bihotz-mina
Finka-zkitzu heien fedea eta esperantza....
Egin dezagun otoitz bizi huntan gaudenentzat ere :

Begira eta finka gaitzazu zure zerbitzu saildian
Altxa-zkitzu gure bihotzak zeruko gauzetara....

- O. **Jainko guziahaldun betierekoa,
bizien eta hilen Nausia, guziak urrikari ditutzu .
Ahuspez otoitz egiten dautzugu
bai bizientzat, bai hilentzat,
saindu guzien bitartez, zure bihotz onak eman diezoten
bekatu guzien barkamena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez**

Beste dei batzu

Denek elgarrekin otoitz egin diezogun Jaunari
gure haurride hilarentzat, bai eta gizon guzientzat.

Haurrideak, maite ginuen bat laguntzen dugu azken egoitzara,
famiaren doluan ere parte hartuz. Bat egin ditzagun halaber
gure otoitzak hil hunen eta hil guzien salbamenduko
eta doluan direnen soleimenduko.

Beste xede batzu

Hilarentzat

Jainkoak har dezan bere haurra bezala
Krixto Jaunak bere heriotzeaz eta pizteaz erosi duena
Jainkoak eman diezon parte saildian zorionean....

Jainkoak saildian artean onhar dezan gure haurridea,
betiereko biziaren hazia ukana baitzuen bataioan

Jainkoak pitz dezan azken egunean,
jan baitu Krixtoaren gorputza, bizia emaiten duen ogia

Jainkoak har dezan **I...** zena,
eta idek diezon zeruko Jerusalemaren atea
Egun berean Kristorekin izan dadin parabisuan.

Gutartean denon zerbitzuko bizi zen **I....** zenarentzat,
sar dadin Jainkoaren bozkarioan.....

Jainkoak eman diezon Ebanjelioaren zerbitzuko ukan duen
karraren saria, eta sor-araz ditzan gutartean langile suharrak
haren obraren segitzeko....

Haur batentzat

Jaunak onhar dezan **I...** zeruko famiaren, eta penetan direneri
eman diezoten fedearen indarra eta esperantzaren kontsolamendua

Jainkoak onhar dezan gure haurride gaztea
zeruko bizian eta bozkarioan,
eta aitameri eman diezoten
fedearen indarra eta esperantzaren kontsolamendua....

Apez batentzat

Jainkoak onhar dezan bere ondoan eta bere bozkarioaz bete
I....zena, gure artean haren zerbitzari izan dena....

Gutartean meza saindua emaiten zuen I....zenarentzat,
Jainkoak eman diezon leku bat bere Erresumako mahainean....

Jainkoak eman diezon I.... gure erretor zenari
predikatu duen Erresuman sartzeko zoriona.....

Ahaidentzat

Jainkoak onhar ditzan zeruko lorian
lur huntarik joanak diren gure ahaide ta adixkideak

Gure familietako hilentzat, jujamenduko egunean
ardiets dezaten betiereko Erresuma

Gure herriko hilentzat, bereziki (aurten, ilabete huntan,
aste huntan) pausatu direnentzat....

Guhaurentzat

Hemen bilduak giren guzientzat,
egun batez elgarrekin izan gaiten piztearen bozkarioan....

Gure heriotzeko egunean jakin dezagun fidantzia oso batean
ezartzen gure burua Jainkoaren eskuetan...

Hemen bilduak girenentzat eta girixtino guzientzat,
fedean eta esperantzan bizi gaiten....

Hemen bilduak girenentzat, Kristo Jaunak berekin har gaitzan
bizien eta hilen jujatzerat etorriko denean....

... ez gaitzan herioak lotsa,
bainan zerurako esperantzak bete gaitzan indarrez

....ez dezagun nigar egin, esperantzarik ez dutenek bezala

....Jainkoak eman diezagun guzieri elgarrekin bakean bizitzea,

Hemen bilduak giren guzientzat, hemen ez ditugun hauridentzat,
gure otoitzen beharretan direnentzat ...

Doluan direnentzat

Doluan diren familientzat, betiko biziaren esperantzak
ezti dezan heien bihotz mina

Berexite hunek penatzen dituen guzientzat,
Jainkoak lagun ditzan eta kontsola

Egun doluan direnendako,
Jainkoak eman dezoten indar bihotzminaren jasaiteko....

Sofrikariotan eta penetan direnentzat,
kausi dezaten sokorri eta amodio.....

Zorigaitzak jo dituen gure anaientzat, lanik, aterberik edo
ogirik gabe direnentzat, kausi dezaten sokorri ezinbertzean ...

Oraiko mundu bihotzgabe huntan sofritzen dutenentzat,
Jainkoak eman dezoten argi eta indar beren nahigabetan....

Erientzat, oinazetan direnentzat,
ukan dezaten beren ondoan adixkiden laguntza....

Sendatzea etsitu duten erientzat,
beren oinazetan kuraia galdu dutenentzat....

Heriotzeko orenean direnentzat,
norbeitek lagun ditzan Jainkoari buruz itzultzen....

Bakarrik, nehor gabe hiltzen direnentzat,
beren bakartasunean ohar ditzen berekin dutela Kristo guziz ona ...

Hilen piztean sinesten ez dutenentzat,
hemengo argiari begiak hetsi aintzin,
Jaunak idek ditzan heien bihotzak betiko argiari ...

Elizarentzat

Jainkoak begira ditzan girixtino guziak
fedean eta esperantzan,
eta denak bil gaitzan bere Erresumako bozkarioan...

Elizarentzat, hemen eta mundu guzian
bizi dadien bakean eta batasunean....

Elizaren artzaintzat, Kristo hiletarik piztuaren lekuko
izan ditzen beren hitz eta obretan...

Apezaren otoitza

Beha, Jauna gure otoitzer :
idek-ozute zure haurrer salbamendurako bidea,
eta emozute zure baitan kausitzea indar eta sokorri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

Jauna, entzun,otoi, zuri oihuz dagon populua,
eta zure Semeak erosi baigaitu Kurutzearen gainean,
emagutzu behar ditugun laguntza guziak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Esker onezko otoitza

Gure Aita erran aintzin :

96

Eskerrak zuri, Aita guziz saildua,
hemen diren
eta hemendik joanak ditugun guzientzat .
Zure nahia da
gure artetik joan denak
orai guziak bere ondoan bil gaitzan.

Gure lanaren gatik barreiatuak ginauden,
gure egun guzietako griñek hartuak,
eta denak utzi ditugu
zure baitan parte hartzeko bertzen nahigabeen.

Orroitzen gira
zure Seme Jesu Kristo gure Jaunak
kurutzean hilez,
elgarretaratu dituela bakarrik zauden guziak ;
eta herioa baino indartsuagoa den bere biziaz
emaiten daukula biziko girelako segurtamena.

Horra zergatik,
zure baitan diren gure aintzineko guziekin,
begitartez ezagutu ditugunekin ,
eta orai zure begitartea ezagutzen dutenekin,
bai eta saildu guziekin batean,
denek elgarrekin erraiten dautzugu :

GURE AITA....

EDO

97

Eskerrak zuri, Aita guziz saildua,
gertakari huntan
zure bihotz onak emaiten daukun argiarentzat.
Orroitzapenez beteak ditugun urte hauk,
beteagoak eta ederragoak agertzen zaizkigu,
erakusten baitaukute zu gurekin zinabiltzala.

Hil eta piztua den
zure Seme Jesu Kristo baitan,
badugu oraitik segurtamena
suntsituak direla berexite horiek :
bai, gure bekatuek altxatzen dituzten hesiak,
bai, herioak dakartzken hausturak,
bai, gure nahigabeen zama ezin jasanak .
Horra zergatik sortzen diren
gure ondoan sustengu berriak,

zure amodioa gure bihotzetan delarik.
Bizi zirenaz geroz, piztuko gira.
Zure baitan bizi diren gure aintzinekoeri jarraikiz,
saindu guziekin batean,
denek elgarrekin, beldurrik gabe diogu :

GURE AITA....

AZKEN OTOITZA

Ikus aldareko liburuan .

Jainko Jauna, zure semeak
bere gorputz sailduaren sakramendua
Utzi dauku bideko janari :
Janari horren bidez egizu
I.... gure haurridea
Kristoren betiereko mahainerat hel dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez...

Jainko guzialduna, zuri otoitzen gaude
mundu huntarik joan zaikun
I zure zerbitzariarentzat.
Opari hunen bidez bekatutik
garbitu eta libratutik,
ardiets dezala betiko piztearen zoriona
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez...

Idekozu Jauna **I ...** Gure haurrideari
argi ta bake den zuren etxea;
Harentzat ospatu baitugu
Bazko sakramendua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez...

Jainko Jauna, guretzat hil eta
aintzaz piztu den
zure semearen sakramendua harturik,
otoitz egiten dautzugu
I ... gure haurridearentzat :
Egizu Kristoren Bazko misterioan garbitu eta,
zeruko ozriona ardiets dezan pizte egunean
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez ...

Azken otoitzaren ondotik, bertzerik gabe, egiten da azken agurra.



AZKEN AGURRA

- 99 Zer erran nahi du zeremonia hunek ?
 Girixtino batzarrak azken agur bat egiten dio bere arteko bati, gorputza hil herriatarat ereman edo ehortzi aintzin.
 Ez da beraz lehengo atsolbea, hunek hilaren garbitzea ziolarik Jainkoari galdatzen. Herioa, beti berexete bat da, baina girixtinoak, Kristoren menbro baitira, ez ditazke berexi, harekin bat egiten baitute .
 Beraz, Azken agurra egiten da gorputza hor delarik, nun ez diren itsasoan edo gerlan galdua den baten ehorzketak egiten .
 (Holako kasuan ez da ez intsentsurik ez ur benedikaturik erabiltzen. Ez eta ere hil oihalik, edo kutxa lekurik edo catafalque)
 Apeza hil kutxaren ondoan egoiten da .
- 100 Dei bat egiten du lehenik, eta gero denak ixilik daude ixtant bat otoitzean. Gero heldu dira Azken agurraren bi parte handienak : Azken agurraren kantua, edo litani otoitza, eta intsentsua eta ur benedikatuarekin ihinzatzea.
- 101 Azken agurraren kantua Hortan denek behar lukete parte hartu, kantuak inportantzia handia baitu.
 Kanturik ez balitz egiten ahal, litani gisako otoitz bat egiten da, kantuak bezala, fidantzia eta esperantza sor-arazteko.
- 102 Ur benedikatuarekin ihinzatzea eta intsentsatzea
 Bataioaren orroitgarria eta gorputzari emaiten zaion ohorea, Izpiritu Sainduaren egoitza izan baita.
 Jestu horiekin girixtino batzarrak azken agurra egiten dio hilari.
 Intsentsatzea ez da obligazionezkoa.
 Ur benedikatuarekin ihinzatzea edo zinatzea, aldin, arras ongi heldu da azken agurraren zeremonian. Ederki erakusten baitu memento hortan bataioa dela hilarekin juntatzen gaituen lokarria. Eta ederrago litake oraino, apezaren ondotik denek egiten balute jestu hori.
- 103 Apezak erraiten du Azken agurraren otoitz berezia, ur benedikatuarekin ihinzatu-eta , edo aintzin, denek egiten badute .
- 104 Jendek ez badute ihinzatzea egiten, apezak burura dezake zeremonia bakea desiratzuz deneri, gorputza ereman aintzin .
 Jendek egiten badute ihinzatzea, organoa jo ditake orduan. Berdin gorputza eremaiten delarik, organoak segi dezake .
 Ez da baitezpadakoa jendeari zerbait kantaraztea orduan.

AZKEN AGURRERAKO DEIA

Apeza kutxaren ondorat doa ; jendeari beha, mintzo da hemen diren hitzekin edo berak moldatuak dituenekin.

1

105 Hemendik joan baino lehen,
elgarrekin azken agur bat eginen diogu
I... gure haurrideari :
ager dezala gure maitasuna,
ezti gure bihotz-mina, finka gure esperantza.
Egun batez berriz aurkituko dugu Jainkoaren bozkarioan,
Kristoren maitasunak, gaitz guziak errautsirik,
herioa ere osoki garraituko duenean.
Gauden apur bat ixilik,
gogoan ditugularik **I.....**-rekin iragan ditugun urteak,
nor izan den guretzat,
nor den Jainkoarentzat
(Ixtant bat ixilik...)

2

106 Orai arte, otoitz egin dugu **I.....** gure haurridearentzat.
Orai, azken agurra eginen diogu, eta utziko dugu :
oren latza, baina esperantzaz arindu behar dugun orena.
Esperantza baitugu berriz ikusiko dugula,
Jainko Jaunak denak bilduko gaituelarik
bere Erreinuko zorionean .
Gauden apur bat ixilik,
gogoan ditugularik **I..**-rekin iragan ditugun urteak,
nor izan den guretzat,
nor den Jainkoarentzat
(Ixtant bat ixilik...)

3

107 Huna nun gure haurridearen ganik berexterat goatzin.
Lur huntan egin du lan, jasan neke,
bere etxekoen (eta bertzen) zerbitzuko .
Eta badakigu horiek guziak ez direla hilen eta galduko.
Ez gaitezela hemendik esperantzarik gabe atera .
elgarrekin orroitu gira
Kristo Jaunak gure gizon-bizitzea ereman duela,
eta haren amodioa herioa baino indartsuagoa dela.
Egun, bilduak gira azken agur batentzat.
Egun batez berriz elgar ikusiko dugu.
Esperantza horrek haz eta gida dezala gure otoitz ixila

- 108 **Gure haurridea Kristoren baitan lokartu da :**
Utz dezagun Jainko gure Aita guziz urrikaltsuaren eskuetan,
betiko biziaren fedean eta esperantzaz.
Lagun dezagun gure otoitzaz ;
bataioaz Jainkoaren haur egina izan da,
 (Jaunaren mahainen parte izan du, indarraren aurkitzeko :
 deitua izan dadila orai Aitaren mahainerat zeruetan).
Eta ondore izan dezala sailduekin batean
hitzemana zaurkun betiereko biza.
Guretzat ere egin diezogun otoitz Jaunari :
oraiko pena eta nigarren ondortik,
joan gaitzen, gure haurridearekin batean,
Kristoren biderat, aintzaz etorriko denean,
hura baita gure biza .
Esperantza hortan, egin dezagun otoitz ixiltasunean....

Fededunen artean ohidura den bezala,
gure adixkidearen gorputza lurrean ezartzerat goitzi.
Otoitz egin diezogun Jainkoari,
diren guziak harentzat bizi baitira,
bere indarrak berpitz dezan hunen gorputza,
eta sailduen artean ezar arima,
Auzian urrikaltsu ager dakiola,
heriotzetik salba eta bere zorretarik libra dezan ;
hola , Aitarekin baketurik eta Artzain onak bizkarrean harturik,
betiereko Erregearen ondoan goza dezala
betiko zoriona sailduekin batean.
Gauden beraz, apur bat ixilik ototzean....

Utz jendea,ixiltasunean ototz egiten. Ez lasterregi has kantua.

AZKEN AGURRAREN KANTUA

- 109 Hautua badugu kantu hauien guzien artean.

110 **Zatozkiote**

Zatozkiote, Jaunaren saildu dohatsuak,
 Zatozte laster hunen biderat, Aingeruak
 Hunen arima har,ereman ,
 Eskain zazue Jaungoikoaren aintzinean.

Besoak zabal, har zaitzala
 Deitu zaituen Kristo Jaunak ,
 Abrahamtarren loriarat
 Joan zaitzatela Aingeruek . Hunen arima...

Betiereko zoriona
 Hil huni, otoi, eman, Jauna ,
 Betiko argi zabalean
 Zure argiak argi dezan . Hunen arima ...

111 Sinesten dut nik

Sinesten dut nik bizi dela Salbatzailea, zinez bizi.
 Lurpetik azken egunean Harek behar nau pitz-arazi.
 Pitz egunean gorputz begiez hari beha,
 ikusiko dut Jainko Jauna eta Eroslea.
 Ezautuko dut nik ongi , nere begiez dena begi .
 Pitz egunean ...
 Segurtamena badut nitan : berriz pizteko gorputzean .
 Pitz egunean

110 Lau egun hartan

Lau egun hartan izana gatik ehortzia
 Lazaro duzu hobitik jeiki-arazia.
 Barkatuz onhar adixkide hau, Jesus Jauna :
 Bizi dadila goiko bakerat eremana.
 Adixkide hau orai hor dugu lo bezala,
 Bainan segura, pizterat jinen zitzaiola.
 Barkatuz onhar ...
 Betiereko zoriona hil huni,otoi, eman, Jauna,
 Betiko argi zabalean, zure argiak argi dezan.

111 Errautsi duzu

Errautsi duzu ifernuetan den indarra :
 Haren menetik, zuk, otoi, gu begira .
 Jautsi baitzare hil ondoan hilen arterat ilunbetan
 Zure argia dute hilek han ikusia
 Bai eta zure begitartea miretsia.
 Guziak zuri goreska ziren oihuz ari :
 Huna zu,Jesus, Salbatzailea, agur zuri.

Zure argia...

Betiereko zoriona hil huni, otoi, eman, Jauna,
Betiko argi zabalean, zure argiak argi dezan.
Jautsi baitzare hil ondoan hilen arterat ilunbetan.

Zure argia ...

114 Ongi etorri

Ongi etorri egin hil hunen arimari :
Hunentzat duzu odola, Jauna, zuk ixuri .

Orroit zoin garen errauskeri,
Belarra eta pentze lorea zoin iduri. Hunentzat....

Egin guziez doluz daldaran nauzu ari
Izan nezazu, otoi, Jauna, zuk urrikari . Hunentzat ...

115 Heriotzeak desegiten

Heriotzeak desegiten du
bizi lekua munduan.
Bainan zuk,Jauna,hartzen gaitutzu
zure etxean, zeruan.
Joan zaikuna
onhartu,Jauna,
zu bizi ziren lekuan.

Jaunaren nahiz huna nun giren
azken agurka bilduak.
Bainan nigarrak xuka ditzala
poz-dirdiraka zeruak.
Hunen bidera
bitez atera
Aingeru ta Sainduak.

Gure arteko gertakariak
bihotzmin asko dakarte.
Bainan elgarren maitez gaudenak
nolaz gu bizi aparte ?
Jainkoa lagun
"Agur" diogun
Egun handian bil arte



Gure munduko

Igan zaite
Jainko Aitaren argian izan
ikus arte zeruan

1
Gure munduko minak utz-eta,
Igan zeruko argira :
Besoak zabal han duzu Aita
Etxean zure begira

2
Hango bizirat guhau betiko
Minen artetik heltzean,
Berriz zaitugu han ikusiko
Jainko Aitaren bakean.

3
Jesu Kristoren kurutzeari
Darion odol saindua
Xortaka zaitzu gainerat arilkus
Emanez barkamendua.

4
Kristau egina zaituen urak
Pizturik begihartea
Jaunaren goiko dirdirak,
Ikus argien betea

5
Azken eguna jinen denean,
Jainkoak deitu orduko,
Kristo bezala berriz piztean
Bizirik zira jeikiko.

6
Bizi berrirat zira sortuko
Gorputz-arimak iduzki,
Jaungoikoari kantuz aitzeko
Zeru-lurrekin alaiki.

AZKEN AGURREKO LITANI-OTOITZA

Kanturik ez baditake eman

- 116 Aita guziz ona, orai zure eskuetan uzten dugu
zure exeko aterat heltzen dena. R/

Herioaren ilunbeak begien aintzinetik ereman dauku,
atera bekio zure iguzki ezin itzalia..... R/

Ez da gehiago gurekin, zurekin izan bedi :
ezagutzen dugu zure amodioa, beti barkatzen duzula R/

Bataioko urak bizia eman zion egun hartaz geroz
ez ote da zure haurra ? R/

Zure Semearen amodioari esker jadanik zurea da :
zure ondoan eta zure bozkarioan bizi dadila. R/

I ... gure haurridea, erraiten dautzugu ez adiorik:
berriz ikusiko zaitugun egun dohatsua arte

- R/ (**Hauturat**) - **Zurekin harrazu gure lagun maitea**
edo - **Zurekin eta zure bozkarioan dagola**
edo - **Emozu, Jauna, betiereko bakea**
Edo - **Zure eskuetan dagola,Jauna.**

EDO

117

Jauna, zuri buruz itzultzen gira, gure haurrideaz orroituz, eta elgarrekin erraiten dautzugu :	R/
Betikotz zure ondoan bakea ezagut dezala ,	R/
Jaunak joan zaizkigun guziekin batean har dezala.	R/
Zure adixkideen zorionean orai parte har dezala ,	R./
Zure begitartea ikusiz zoriona ezagut dezala,	R/
Hunen orroitzapenak zure ganat ereman gaitzala,	R/

EDO

118

Gogoan izan ditzagun, Jesusek Lazaro bere adixkidearen arrebari erran hitz hauk : " Ni naiz piztea ta bizia. Nitán sinesten duena, hilik ere, biziko da, eta nitán sinetsiz bizi dena, ez da sekulan hilen.	
Otoitz egin dezagun beraz elgarrekin, erranez :	R/
Jesus Jauna, Lazaro zure adixkidearen gatik nigar egin zinuen : xuka, otoi, gure nigarrak ,	R/
Hileri bizia berriz eman zinioten : emozu,otoi, gure haurrideari betiereko bizia,	R/
I ... gure haurridea, bataioko uretan saindu egin eta sagaratu duzu : emozu zeruan Jainko-semeen bizi betea.	R/
Zure gorputz odolez hazi duzu mahain sainduan : harrazu orai zure Erreinuko mahainean.	R/
Gu maitez hil zira eta herioa garraitu duzu, guk bizia izan dezagun : finka-zkitzu,otoi, gure bihotzak esperantzaz.	R/
Gure haurridea joan zaikulakotz nahigabetan gaudenak kontsola gaitzazu betiko biziaren sinesteaz eta esperantzaz	R/

INTSENTSATZEA ETA IHINZTATZEA

Horiek egin aintzin, hitz bat erran ditake esplikatzeko

- 119 **I... zuretzat dugun errespetuaren erakusteko,**
 huna intsentsu hau :
 Doala Jaunaren aintzinerat
 gure otoitzarekin batean.
- 120 Ihinztatu aintzin, erran ditake:
- Esperantza dugu eta sinesten dugu**
 denak piztuko girela
 Fede horren seinale gorputz hau benedikatzen dut ,
 Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean.
- 121 Biak egiten badira, esplikazione bat aski litake .
 Bertze hitz batzu ere erabil ditazke, hemen direnak etsenplu gisa
 emanak dira.

AZKEN AGURREKO OTOITZA

Hemen ere hautua badugu otoitz hauien artean :

- 1
- 122 **Jainko gure Jauna,**
 zure eskuetan uzten dugu gure haurridea :
 zure maitasun gozoaz inguratu duzu hemengo ibilaldian,
 atera zazu orai gaitz guzietarik,
 eta mundu iragankor huntarik urrundu denaz geroz,
 eremazu zure ondorat, betiko atsedenerat,
 hor ez baita ez nigarrik, ez auhenik, ez oinazerik,
 bainan bai bake ta bozkario,
 zure Semearekin eta Izpiritu Sainduarekin,
 gizaldi eta gizaldi guzietan ...
- 2
- 123 **Jesus Jauna, amultsuki beha atsegabetan daudeneri,**
 eta onhar galdu dutenarentzat
 egiten dauzkitzuten otoitzak :
 Zu bakarrik zira saindua,
 zure maitasuna bakarrik da neurrigabea :
 barka gure anaiari bere bekatuak.
 Heriotzerat eman duzu zure burua,
 gizon guziak salba ditezen, eta heriotik bizirat iragan :
 ez zazula utz gure anaia zu ganik urrun,
 bainan zure maitasuna herioa baino indartsuagoa baita,

emozu argia, zorion eta bakean bizitzea,
zurekin, gizaldi eta gizaldi guzietan.

3

124

Jainko gure Aita,
azkar zatzu gure fedea eta esperantza,
bere azken egoitzarat eremaiten dugularik
lur huntan, zuk bakarrik dakizula,
hoinbertze lan egin duen **I...** zure zerbitzaria.
Otoi, harentzat saildu eta handi zen guzia
errespeta dezatela haren obra segitzen dutenek ;
barkatua bekio egin duken gaizkia,
eta sariztatua egin duken ongia,
hil eta piztu den Jesu Kristo zure Semearen bitartez.

4

125

Aita guziz ona,
zure eskuetan ezartzen dugu gure haurridearen arima,
esperantza baitugu ,
Kristo baitan hil diren guziak bezala
hau ere Kristorekin piztuko dela azken egunean.
*(Eskerrak emaiten dauzkitzugu
gure haurrideak bere bizian zure ganik
hartu dituen grazia guzien gatik :
guretzat zure bihotz onaren ezagutgarri izan dira,
eta sailduen arteko partaliertasunaren seinale.)*
Jaun urrikaltsua, entzun gure otoitzak,
eta idek zeruko ateak zure zerbitzariari.
Eta egizu, hemen gaudenek, elgar lagun dezagun
sinesteak erakusten dauzkigun hitzez,
zure ondoan gure haurridearekin
bilduko gaitutzun arte,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

5

126

Jainko guziahalduna,
kurutzean hil den zure Semearen bitartez
ezeztatu duzu gure heriotzea,
hil-hobian egon denaren bitartez saildu egin gure hobia,
eta hilenartetik piztu den Jesu Kristoren bitartez,
berritu gaitutzu betiko bizirako.
Onhar, otoi, gure galdeak,
Kristo baitan hilik, pizte dohatsuaren beha dagonarentzat.
Bizien eta hilen Jainkoa, bihotz onez egizu,
bizi huntan fedearen bidez zu ezagutu zaituenak
gorets zaitzan beti zeruko zorionean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

6

- 127 Gure nahigabeen, Jauna,
fidantziarekin otoitz egiten dautzugu :
zu baitzira amodiozko Jainkoa,
zure haurren otoitza entzuten duzuna.
Orroit zaite zure zerbitzari **I ...** gure anaiarentzat
egin dituzun guziez :
Bataioko egunean zure familian onhartu duzu.
Gure ganik urrundu den huntan,
harrazu otoi, zure ondoan
parte izan dezala sainduen, zure adixkideen zorionean,
dena argi eta bake den zeru ederrean,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

7

- 128 Zu zira, Jauna fededunen bizia,
zu zintzoen ospea,
eta zuk salbatu gaitutzu
zure Semearen heriotze ta pizteaz
Urrikal zaite **I** gure haurrideaz,
eta Kristo baitan piztuko girela sinetsi duenaz geroz,
goza dezala betiko zoriona,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez ...

Edo :

Jainko Jauna, zure eskuetan uzten dugu
I..... zure zerbitzariaren arima , mundu huntarik ateratu-ta,
zuretzat eta zurekin bizi dadin.
Urrikaldurik, barka-zkiotzu
gizonaren ahuleziaz egin dituen bekatuak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

ELIZAKO ZEREMONIA BURURATZEAN

- A. **Ihinztatzea apezak jada egina badu**

1

- 129 **Segidan has ditake kantu bat, gorputza eremaitean (n° 133)**

Apezak erran dezake

- 130 Orai emanen ditutzuen amodio-seinale guziak
 izan ditela zuentzat
 elgarrekin bilatu dugun bakearen ezagutgarri .
 Zoazte Jaunaren bakean.

B Ihinztatzea denek egiten badute


- 131 Apezak ihinztatzen du lehenik, gero familiak, eta gero bertzek.

I..., orai gutarik bakotxak, zuri azken agur baten egiteko,
 eginen du zure gainean kurutzearen seinalea,
 bataioa orroitarazten daukun urarekin.
 Ondoan ditutzun zure adixkideen otoitzak,
 eta herioa garraitu duen Kristoren amodioak
 ardiets diezazutela oraidanik eta betikotz ezagutzea
 Jainkoaren haurren bake ta zoriona.

- 132 Ihinztatzean, eta gorputza eremaitean, organo edo kantu.

ELIZATIK HIL-HERRIETARAT

- 133 Prooxino bat balinbada hil herrietarat, kanta ditake salmo bat :
 117gna, edo 41gna , edo 92gna, edo 34gna bere leloarekin .



HAUR TTIPIEN EHORZKETAK

134

Jende larrientzat bezala egiten dira ehorzketak.
Salbu hemen diren berezitasunak .

Jauntzi xuritan .

Hemen diren otoitzak haur ttipi ttipientzat emanak dira .



MEZA HASTE**DEIAREN EGITEKO**

135

1

Haurride maiteak,
nahigabeen dagon familia baten inguruan gaude...
....gure amodioaz laguntzeko...
....Nahigabe berak bilduak....
... Bainan esperantza berak biltzen gaitu otoitzean

Edo

2

Bataio egunean, Jainkoaren haur bilakatu da.
(*aipa ditake bataioko jauntzi xuria*)
Ez dugu **I....**-rentzat otoitz egiterik,
harek du guretzat otoitz egiten,
Jainkoaren ondoan baitago.

Edo

3

137

Zuen ganik, bere aita-amen ganik,
haur hunek hartu duen bizia ez da suntsitua,
Jainkoak betiereko bizi egin du
(Gure amodioaren eta errespetuaren erakusteko ezarri ditugu
lore hauk : gure hitzek erraiten ez dakitena erran dezaten.
Esperantzaren seinale dira guretzat)

HAUTURAKO RITOAK**Argia**

138

Ikus n° 54

1

139

Jauna, bere bataio egunean **I ...** gure esku utzia zinuen
argiaren seme bezala handi zadien :
Elizan sartu zela orroitzuz, piztu dugu argi hau.
Argi gaitzala egun, zu ganako bidean
zu bizi baitzira menderen mendetan.

2

140

Jainko gure Aita, **I** ttipiaren heriotzeak
orroit-orazten gaitu deus guti dela gizona,
eta biziki laburra haren bizia.

Bainan zure amodioan sinesten dutenentzat
herioa ez da denen bururapena :
Hor dugu Jainko-semeen esperantza ,
eta guretzat argi egiten du Kristo piztuaren argiak,
Herioaren garraile den Kristoren argiak,

Jauntzi xuria

141 Familiak nahi badu aipa ditake bataioko jauntzi xuria ;
Agurra egin-eta, ezartzen da kutxaren gainean alba bat, edo bataioko
arropa xuria. Eta gero erraiten da

142 Jauna, bihotz onez beha zozu zure haur egin duzun huni,
bere bataioko jauntzi xuria emaiten diogularik.
Esperantza sendoa dugu zure ondoan hartzen duzula,
han ez baita ez nigar ez nahigabe,
bainan bai bake ta bozkario.

BEKATUEN URRIKIA

143 Ikus nº 63

OTOITZA

Haur bataiatu batentzat

- 1
- 144 Jainko Jauna,
arindu zazu zure zerbitzarien nahigabea :
eta haur hau, bataioko uretan garbiturik,
zeruko biziaren jabe egin baituzu,
emaguzu guri ere betiereko zoriona harekin batean ,
Zure Seme
- 2
- 145 Jainko gure Aita,
badakizu nahigabetan gaudela
joan zaikun haur hunen gatik :
lagun-zkitzu nigarretan daudenak zure ondoan dela sinesten,
Zure Seme
- 3
- 146 Jainko guziz ona,
zure bihotz onari ahuspez otoitz egiten diogu :
egin gaitzazu egun batez betiereko biziaren jabe
zure Erreinuan dela sinesten dugun haur hunekin.
Zure Seme ...

3

151 Jainko Jauna, zuk dakizu bihotzen berri,
eta zuk ditutzu kontsolatzen :
burraso hauien fedea ezagutzen duzunaz geroz,
egizu, sinets dezaten penarekin galdu duten haur ttipia
zure urrikalmenduaren besoetan utzia dutela,
Zure Seme

HITZAREN LITURGIA**Epixtolak**

Iz . 25,6a .7-9	p.23 n°4
Auhen..",17-26	p.24 n°5
Errom. 6,3-4.8-9	p.26 n°11
Errom. 14,7-9	p.28 n°14
1 Ko. 15,20-23.....	p.28 n°15
1 Tez. 4,13-14.18	p.30 n°19
Apo. 21,1a,3-5a.....	p.32 n°25
Efes, 1,3-5	
Apo. 7,9-10.15-17	

Jondoni Paulok Efesako girixtinoeri

1, 3-5

- Haurrideak,
- 3 Benedikatua Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita
Kristo baitan benedikatu gaitu zeruetan
Izpirituaren benedizione guziez.
- 4 Haren baitan hautatu gaitu, mundua egin baino lehen,
saindu eta hobengabe izan gaitezen haren aintzinean.
- 5 Bere amodioan beretzat aintzinetik hautatu gaitu
bere semetzat Jesu Kristoren bidez.

Jondoni Joaniren apokalipza liburutik

7, 9-10

- 9 Nik, Joanik, ikusi nuen oste bat gaitza,
nihork ezin kondatuzkoa,
herri , leinu, gizalde eta mintzaira guzietarik,
jar-alkiaren aintzinean eta Bildotsaren aintzinean xutik,
jauntzi xuriak soinean eta ostailak eskuetan.
- 10 Oihu handi batean zioten :
Salbamendua, jar-alkian dagon Jainkoarena da eta Bildotsarena.
- 15 Hortakotz dagozi Jainkoaren alki aintzinean,
gau eta egun haren zerbitzari bere egoitza sainduan;
eta alkian jarria dena egonen da horiekin.
- 16 Ez dute gehiago ez goserik, ez egarririk izanen,
ez ditu gehiago joko ez iguzkiak, ez beroak .
- 17 Bildotsa, alkiaren erdian dagona, izanen baitute artzain,
eta berak eremanen baititu ur biziaren iturrietar.
- Eta Jainkoak xukatuko ditu heien begietako nigarrak oro.

Salmoak 22° : p. 33 - 24° p. 33 - 41°- 42° p. 34

148° p.74

Salmoa 148

Leloa : Orok Jaunari egin kantu
Zerua sari eman baitu (125)

Aipa Jainkoa zeruetan, Aipa zazue gain gaineretan
Aipa zazue Aingeruek, Aipa zazue goi-indarrek.

Lurreko jaunek eta jendek, Buruzagiek, zuzentzailek.
Bai gizon gaztek, bai neskatxek, Xaharrek eta haur guziek.

Aipa guziek Jaun izena, Hura da hura den gorena.
Nork aski aipa Jaun izena Zeru-lurreri Nausi dena.

Izraeli zain dagokio : Gaitzeko indar eman dio .
Jauna, sainduen laudorio ; Izraeldarren bozkario.

Alleluiako bertsuak

- Eskerrak zuri, Jainko Aita, zeru-lurren Jaun betikoa.
Haur ttipieri baititutzu Erresumako mixterioak agertuak.
- Huna ene Aitaren nahia :
harek eman guzietarik ez dezadan bat ere gal,
bainan guziak pitz ditzadan azken egunean.
- Benedikatua urrikalmenduen Aita,
Laguntza ororen Jainkoa,
herstura guzietan laguntzen gaituena.

Ebanjelioak

Mat. 11,25-30	p.39	n°2
Joan.6,37-40.....	p.46	n°11
Joan. 6,51-58.....	p.46	n°12
Joan. 11,32-38.40.....	p.47	n°14

Haur bataiatu gabe batentzat

Izai 25,6a.7-8a	p.23	n°4
Auh. 3,17-26	p.24	n°5
Salmoa 24gna	p.33	
Mark 15,33-46	p.41	

AZKEN AGURRA

- 155 Jende larrientzat bezala egiten da.
Hemen dira otoitz berezi batzu.

AZKEN AGURRERAKO DEIA**Haur bataiatu batentzat**

1

- 1 **Fedeak eta karitateak parte har-arazten daukute
beren haurra galdu dutenen nahigabeen.
Bainan segur gira, egun Jaunak hartzen duela
bataioak Jainkoaren haur egin baitu.
Ixiltasunean, bildutasunean dei egin diezogun
Jainko gure Aitaren bihotz onari **I...**-rentzat,**

apur bat ixilik

2

- 157 **Haurno hau, bataioan Jainkoak bere seme (alaba)
egina zuena, bere ondoan dago orai.
Lurrean utziko dugun gorputza, egun batez piztuko da,
bizi berrirako lore.
Bizi hortan jadanik sarturik dagola sinesten baitugu,
esperantza osoan eska dezogun Jainkoari,
arindu dezan burrasoen eta ahaiden bihotz-mina,
eta sor diezagun guziera zerurako gogoia ...**

3

- 158 **Hoin denbora guti **I...** ttipia gurekin zela,
eta jadanik azken agurra egin behar diogu.
Aita-amek nahi zuten gidatu bizitze huntan,
eta huna denak aintzintzen gaituela Jainkoaren ondoan.
Gauden ixilik otoitzean Jainko Jaunari,
eman diezagun indar bere ganat geraman bidean....**

- 159 **Haurrideak, Jainkoaren eskuetan utz dezagun haur ttipi hau,
eta kartsuki otoitz egin dezagun burrasoentzat :
nigarretan daude , joan zaiotelakotz,
bainan Jainkoaren eskuetan ezarria dute.
Gauden ixilik otoitzean,
Jainkoaren amodioak emaiten daukun esperantzaz**

- 160 **Utz jendea ixtant bat ixilik otoitz egiten**

Azken agurreko kantua

Ikus jende larrien ehorzketako emanak direnak 110-115

Azken agurreko litani-otoitza

Ikus n° 116 p. 63

Intsentzatzea eta ihinztatzea

Hitz bat erran ditake egin aintzin

- 167 **I ... zuretzat dugun errespetuaren erakusteko,
huna intsentsu hau : doala Jainkoaren aintzinerat
gure otoitzarekin batean.**

Haur bataiatu batentzat

- 168 **Zure bataioaren orroitgarri den ur hunek
orroit-araz gaitzala
Jainkoak bere haur egin zaituela:
Egun onhar zaitzala bere bakean .**

Ez delarik bataiatua

- 169 **Hartu beharra zinuen bataioaren seinale den ur hunek
orroit-arazten gaitu Jainkoak maite zaituela :
egun onhar zaitzala bere bakean.**

- 170 **Biak egin ditazke esplikazione batekin.**

AZKEN AGURREKO OTOITZA

1

- 171 **Jaingo gure Jauna, zure eskuetan uzten dugu
zuk hain maite duzun gure haurride ttipia :
Eremazu, otoi, zerurat,
han ez baita ez nigarrik, ez auhenik, ez oinazerik,
bainan bai bake ta bozkario,
zure Semearekin eta Izpiritu Sainduarekin
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

edo

2

- 172 **Aita guziz urrikaltsua,
beti gure laguntzen ari ziren Jainkoa,
betiereko maitasunez maite gaitutzu,
eta herioaren ilunbea argi egiten duzu :
begira, otoi, atsegabetan nigarrez dauden zure zerbitzarieri.
Izan zaite gure ihes-leku eta indar,
atsegabe hauien erditik hel gaitezen**

zu gurekin izaiteak dakarren argi ta bakera.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunak
 bere heriotzeaz gure heriotzea ezeztatu baitu,
 eta bere pizteaz gure bizia berritu,
 emaguzu hari jarraikitzeke indarra,
 bizi hilkor huntako ibilaldiaren ondotik,
 egun batez gure haurride guziekin aurki gaitzen,
 begietarik nigar guziak xukatuko ditutzun lekuan.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

3

173 Jainko Jauna, gizon guziak salbatu nahi baititutzu,
 sinesten dugu neurrigabekoa dela zure maitasuna,
 eta badakigu ez dela adinik zutaz maitatua izaiteko.
 Zure eskuetan ezartzen dugu **I...** (haur hau)
 zure ezagutzeko astirik gabe joan zaikuna.
 Harrazu zure ondoan, agerrozu zure Aita-bihotza,
 eta egizu betierekotz zure haur.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

ELIZAKO ZEREMONIA BURURATZEAN

Ikus p.67

Salbu n° 131 -en orde :

177 **I...**, orai gutarik bakotxak,
 zuri azken agur baten egiteko,
 eginen du zure gainean kurutzearen seinalea,
 bataioaz orroit-arazten gaituen urarekin.
 Jainko Jaunak har zaitzala bere bakean .



BERTZE OTOITZ BATZU

Gorputza elizarat aintzinetik ekartzen bada egin ditaken otoitza :

1

179 Harriturik gaude, Jauna,
gure nahigabea ez jakin zer erran .
Ezagutzen eta maite duzun I...-rentzat
otoitz bat bezala har-azu gure ixil egoite hau .
Bere bideak zure ganat ereman duena
onhar-azu zure Erreinuko argian ta bakean.
Zure amodioa izan bekigu bideko argi ,
zure ondorat bilduko gaitutzun eguna arte,
menderen mendetan.

2

180 Jauna, egiazko otoitza onhartzen duzu,
eta gure galdea ikusia duzu guk egin baino lehen.
Otoitzez gaude, utzi gaituen I...rentzat :
zure ondoan aurki ditzala bakea ta bozkarioa,
zure Erreinurat deitu ditutzun guziekin batean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Apez baten ehorzketan

181 Jauna, bihotz onez beha zozu I zure zerbitzariari :
jauntzi hau erabili du, biziaren
eta zure amodiotik dugun bozkarioaren seinale.
ezar alba

Estola erabili du, gizonak biltzen zituelarik ,
heieri emaitako zure ogia eta zure hitza,
ezar estola

Ager dadila egun zure aintzinean, bekatutik libro,
zure adixkideen besta-jauntziarekin.

Haur bataiatu berri batentzat, edo kominioea berriki egin duen batentzat. Jauntzi
xuria kutxaren gainean ezarri-eta, erran ditake .

182 Jauna, bihotz onez beha zozu I.... gure haurrideari.
Jauntzi hau erabili du ,
biziaren eta zure amodiotik dugun bozkarioaren seinale.
Zure aintzinean ager dadila
zure adixkideen besta-jauntziarekin.

BERTZE KANTU BATZU

Meza hastean

ADIXKIDE HAU

Adixkide hau iragan zaiku
bizi berrirat hemendik :
Azken go hatsa eman du eta
ereman duzu gu ganik.
Sinesten dugu, segur gare gu
Zurekin dela bizirik .

Zuk errana da Bizia eta
denen Piztea zarela.
Fededun oro, hil eta ere,
bizi-arazten duzula.
Zurea zena,
Lagun hau, Jauna,
Betikotz hil ez dadila.

Hil eta piztu zarela, Jauna
bakean gaude sinetsiz.
Gaur mixterio bizigarri hau
goraipatzen dugu berriz .
Lagun hau beti
Argitu bedi ,
zure Bazkoaren argiz .

ZABAL DEZOLA

Zabal dezola Jaunak zeruko atea :
Herri hartarat zuzen ereman dezala

Zabal dezola Jaunak zeruko atea.

Ez da sartzen han gaua, ez eta hiltzea.
Han da betiko boza, han argi zabala. Zabal...

Bururatzean

BAZINAKIEN

Bazinakien nor nola nintzen, sortu aintzin :
Jaun zerukoa zure eiterat nauzu egin .

Jauna, zuk eman bizi hori
Itzultzen dautzut orai zuri.

Egin guziez damu-daldaran nauzu ari
Azken auzian ez otoi, Jauna, jazar neri .

Jauna, zuk eman bizi hori
Itzultzen dautzut orai zuri .

IN PARADISUM

Zeruatarat zaitzatela aingeruek ereman,
Harat heltzean, Martirek har :
Hek lagun, zaiten sar
Jerusalemeko hiri sainduan .

Chorus Angelorum,

Aingeru taldeak har zaitzala
Eta deus gabe izan zen Lazaro bezala
Harekin zaitzula emana
Betiereko zoriona

EGO SUM

Ni naiz piztea, ni bizia
Nitan sinesten duen hura
Hil bada ere, biziko da
Nitan sinetsiz bizi dena
Hura sekulan ez da hilen.

PIZTU DA KRISTO

Piztu da Kristo, alleluia
Gu baitan dago, alleluia.

1 Jainkoak baitu
Gaur Kristo piztu, alleluia
Bere indarraz
Piztuko gaitu
Alleluia, alleluia,

2 Gure gorputza
Baitu egoitza, alleluia.
Orai berekin
Gaitu bat egin
Alleluia, alleluia.

3 Gorputza dugu
Kristoren menbro, alleluia.
Erosi gaitu
zinez kario.
Alleluia, alleluia.

4 Jaunari kanta :
Goresmen eman, alleluia
Bai bihotz eta
Bai bihotzean.
Alleluia, alleluia.

KRISTO BIZI DA BIZI

Kristo bizi da , bizi,
Lehen, orai, beti.

Hilen artetik zaiku Kristo berriz piztu,
Loan daudenetarik lehen bizi fruitu,
Berak heriotzea piztuz du garraitu.

Hilen artetik zaiku Kristo berriz piztu,
Eta heriotzea piztuz errautsi du
Nun duk, heriotzea, hire garraitzea ?

Hilen artetik zaiku Kristo berriz piztu.
Beti, Kristoren bidez, esker eta kantu .
Guri Jainkoak baitu eman salbamendu.

HILEN MEZAK

Meza hautako kantu eta otoitzak kanbia ditazke, batetik eta bertzetik hartu beharren arabera. Berdin otoitzetan erran ditake: *I....zure zerbitzaria, edo I. gure anaia, gure arreba, I... gure haurridea, gure adixkidea...* Bazko denboran, alleluia ken ditake hala beharrean. Hilen prefazioak badira 5. Haurrentzat ere hoitarik bat hartzen da.

1. EHORZKETAK

A

SARTZEA

Betiereko zoriona, heieri, otoi, eman, Jauna:
Betiko argi zabalean zure argiak argi ditzan.

OTOITZA

Jainko Aita guziahalduna,
zure Seme Jesus Jauna hil eta piztu dela
aitortzen du gure fedeak:
mixterio hunen bidez, egizu, **I...** gure anaia
herioan Jesusekin bat izan den bezala,
piztean ere harekin bat izan dadin.
Zure Seme...

EDO

Jainko Jauna, zuri bakarrik baitagokizu
beti urrikaltzea eta barkatzea,
(egun) mundu huntarik zu ganat deitu duzun
I... zure zerbitzariarentzat otoitz egiten dauzugu:
Zure baitan esperantza eta sineste izan duenaz geroz,
eremazu zure etxerat eta emozu betiereko zoriona.
Zure Seme...

ESK. GAIN.
OTOITZA

Jainko guziz ona,
zure zerbitzariaren salbamendurako
eskaintzen dautzugu opari hau,
bai eta ahuspez eskatzen:
zure Semea Salbatzaile ezagutu duenak
Juje urrikaltsu aurki dezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

KOMINIONEA

Betiko argi zabalean dutela izan argi, Jauna,
Zure Sainduen betiereko ospe hartan
Zuk hoin baituzu bihotz ona.

Betiereko zoriona heieri, otoi, eman, Jauna,
Betiko argi zabalean zure argiak argi ditzan.
Zure Sainduen betiereko ospe hartan,
Zuk bain baituzu bihotz ona.

AZKEN OTOITZA

Jainko Jauna,
zure Semeak bere gorputz sainduaren sakramendua
utzi dauku bideko janari:
janari horren bidez, egizu, **I...** gure haurridea
Kristoren betiereko mahainerat hel dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

SARTZEA

Zabal dezola Jaunak zeruko atea:
Herri hartarat zuzen ereman dezala.
Ez da sartzen han gaua, ez eta hiltzea.
Han da betiko boza, han argi zabala.

OTOITZA

Jainko Jauna, bekatoreentzat urrikalmendu zira,
eta zure sainduentzat zorion:
hunat ekarri dugun **I...** zure zerbitzariari
emozu parte zure hautetsiekin zeruko zorionean,
bizi huntako lokarrietarik libra tu-ta,
zure aintzinerat ager dadin pizteko egunean.
Zure Seme...

ESK. GAIN.
OTOITZA

Jar zaite, Jauna, **I...** zure zerbitzariaren aLde:
harentzat eskaintzen dautzugu bake-opari hau,
bekatu-kutsurik gelditu bazaio,

edo gizonaren gaizki zerbeitek zikindu badu,
bihotz onez barka diezozun.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

KOMINIONEA

Jesu Kristo gure Jauna igurikatzen dugu Salbatzaile,
harek baitu gure gorputz ezdeus hau aldaturen,
bere gorputz loriosaren idurirat.

AZKEN OTOITZA

Jainko guziahalduna, zuri otoitzez gaude,
(egun) mundu huntarik joan zaikun
I... zure zerbitzariarentzat:
opari hunen bidez bekatutik garbitu eta libratu-
ririk, ardiets dezala betiko piztearen zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bazko denboran

SARTZEA

Jesus hil eta piztu den bezala, berdin ere,
Jesusen baitan lokartu direnak,
Jainkoak eremanen ditu harekin bateau.
Adamen baitan dira hiltzen gizon guziak:
berdin ere Kristoren baitan dira denak piztuko, alleluia.

OTOITZA

Bihotz onez entzun, Jauna, gure galdeak:
handiago egizu, otoi,
zure Seme hiletarik piztua baitan dugun fedea,
I... gure haurridea piztuko delako esperantza ere
handiagoa izan dadin.
Zure Seme...

ESK. GAIN.
OTOITZA

Begi onez ikus, Jauna, gure eskaintza:
I... zure zerbitzaria sar dadin zure Erreinuan,
bere maitasun-mixterioan
bat egin gaituen zure Semearekin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

KOMINIONEA

Ni naiz piztea, ni bizia:
nitan sinesten duen hura, hil bada ere biziko da.
Nitan sinetsiz bizi dena, hura sekulan ez da hilen, alleluia.

AZKEN OTOITZA

Idek-ozu, Jauna, I... gure haurrideari
argi ta bake den zure etxea:
harentzat ospatu baitugu Bazko-sakramendua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

D

Bertze otoitz batzu ehorzketako

OTOITZA

Jainko Jauna,
zuk bakarrik dezakezu herioaren ondotik bizia eman:
Atera zazu I... gure anaia bekatu guzietarik,
Kristoren piztea sinetsi duenaz geroz,
pizteko egunean zurekin izan dadin zeruan.
Zure Seme...

ESK, GAIN.
OTOITZA

Jainko guziahaidun urrikaltsua,
meza huntan eskaintzen den Kristoren odolaz,
ken I... zure zerbitzariaren bekatuak:
zure bihotz onak garbiago egin dezala
bataioko urean garbitu duzuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA

Jainko Jauna, guretzat hil eta aintzaz piztu den
zure Semearen sakramendua harturik,
otoitz egiten dautzugu **I...** gure haurridearentzat:
egizu, Kristoren Bazko-mixterioan garbitu-eta,
zeruko zoriona ardiets dezan pizte-egunean.

2. URTE BURUTAKO MEZAK**A****SARTZEA**

Nigar guziak begietarik xukatuko diozkate Jainkoak,
eta ez da gehiago izanen heriotzerik;
eta nigar-garrasi eta atsegaberik ez da gehiago izanen;
lehengo gauzak itzali baitira.

OTOITZA

Zu zira, Jauna, fededunen bizia, zu zintzoen ospea,
zuk salbatu gaituzu zure Semearen heriotze ta pizteaz:
urrikal zaite **I...** zure zerbitzariaz,
eta Kristo baitan piztuko girela sinetsi duenaz geroz,
goza dezala betiko zoriona.
Zure

**ESK. GAIN
OTOITZA**

Begi onez ikus, Jauna,
I... zure zerbitzariarentzar egiten dautzugun eskaintza:
zeruko sendabidez garbiturik,
beti zoriontsu bizi dadin zure aintzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

KOMINIONEA

Ni naiz piztea eta bizia, dio Jaunak.
Nitan sinesten duenak, badauka betiereko bizia,
eta holakoa ez da kondenatzen,
bainan heriotzetik bizirat iragan da.

AZKEN.
OTOITZA

Kominione sailduak indar-berriturik, Jauna,
ahuspez eskatzen dautzugu:
I... zure zerbitzaria bekatu guzietarik garbi dezazun,
eta piztearen betiko dohainaz aberats egin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

SARTZEA

Jesus Jauna, emozute hileri betiko zoriona:
heientzat baituzu ixuri zure odol baliosa.

OTOITZA

Jainko Jauna, **I...** zure zerbitzariarentzat
otoitz egiten dautzugu, heriotze-urteburu huntan:
ixur-azu haren gainerat zure betiko urrikalmendua,
eta emozu zure sailduekin bateau bizitzea zeruan.
Zure Seme...

ESK. GAIN.
OTOITZA

Entzun, Jauna, gure otoitzak,
I... zure zerbitzariaren urteburu huntan:
goresmen ta bakezko opari hunen bidez,
zure sailduen artean onhar dezazun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

KOMINIONEA

Nekearen ondotik zu baitzira atsedena, Jauna,
herioaren ondotik zu bizia, emozute betiereko zoriona.

AZKEN OTOITZA

Onhartu ditutzu, Jainko guziz ona,
I... zure zerbitzariarentzat eskaini ditugun
otoitzak eta oparia: apalik eskatzen dautzugu,
bekatu kutsurik gelditzen bazaio,
garbi dezan urrikalmenduz emanen diozun barkamenduak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

C

Bazko denboran

Hilen artetik Jesus piztu zuen Jainkoak,
gure gorputz hilkorrek ere piztuko ditu,
gure baitan dagon Izpirituaren bitartez,
alleluia.

OTOITZA

Jainko guziahaldun urrikaltsua,
zure Semeak bere gogoz jasan du heriotzea gure gatik:
emozu, otoi, **I...** zure zerbitzariari
bat izaitea harekin pizte miragarrian.
Zure Seme...

**ESK. GAIN.
OTOITZA**

Jainko guziahaldun urrikaltsua,
meza huntan eskaintzen den Kristoren odolaz
ken **I...** zure zerbitzariaren bekatuak:
Zure bihotz onak garbiago egin dezala
bataioko urean garbitu duzuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

KOMINIONEA

Ni naiz ogi bizia, zerutik jautsia, dio Jaunak.
Ogi huntarik jaten duena biziko da betiere;
eta nik emanen dutan ogia, nere haragia da
munduaren bizitzerako, alleluia.

AZKEN OTOITZA

Jainko Jauna, guretzat hil eta aintzaz piztu den
zure Semearen sakramendua harturik,
otoitz egiten dautzugu **I...** zure zerbitzariarentzat:
egizu, Kristoren Bazko-mixterioan garbitu-eta,
zeruko zoriona ardiets dezan pizte-egunean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

D

Bertze otoitz batzu urteburuetan

OTOITZA Jainko Jauna, zure Semearen Pasionen dohatsuaren bidez,
emozu **I...** zure zerbitzariari
beti eskatu duen bekatuen barkamendua:
zu ziren bezala ezagutuz eta ikusiz
betiko zoriona izan dezan.
Zure Seme...

ESK. GAIN.
OTOITZA Ahuspez eskaintzen dautzugu, Jauna,
opari hau **I...** zure zerbitzariarentzat:
zuk eman argiari esker ezagutu baitzaitu,
bozkaria dadila beti zurekin izaitez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA Bizi-berritzen gaituen janariaz ase gaitutzu, Jauna:
egizu, eukarizti hunen bidez,
I... gure anaia, bekatu guzietarik garbitu-ta,
sar dadin zeruko zorionean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E

Bertze otoitz batzu urteburuetan

OTOITZA Jainko Jaun barkazalea, emozu **I...** zure zerbitzariari
heriotze urteburu huntan, atsedean gozoa,
bake zoriontsua eta zure argiaren dis-tira.
Zure Seme...

AZKEN OTOITZA Jainko guziahalduna, opari hau
I... zure zerbitzariarentzat eskaini dautzugu:
sakramendu hunen indarrez
bekatu guzietatikan garbiturik,
urrikalmenduz emozu betiko argiaren zoriona,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

3. EGUN GUZITAKO MEZETAN

A

Hil batentzat

SARTZEA Zabala dezola Jaunak zeruko atea:
Herri hortarat zuzen ereman dezala.
ez da sartzen han gaua, ez eta hiltzea.
Han da betiko boza, han argi zabala.

OTOITZA Jainko Aita guziahalduna,
Kurutzearen mixterioaz azkartu gaitutzu,
eta zure Seme piztuaren ezagutgarriaz markatu:
Emozu I... gure anaiari,
bizitze huntako lokarrietarik libratu-eta, zure adixkideen
zorionean sartzea.
Zure Seme...

ESK. GAIN. Onhar, Jauna, gure eskaintza galdeekin batean:
OTOITZA I... zure zerbitzariaren salbamenerako ekarri baitugu,
ardiets dezola zure erospenaren betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Entzun, Jauna, zure urrikalmenduari
deika ari girenen otoitzak:

I... gure anaia, lur huntan zure herriko egin zinuena, sar-arazazu
orai bakezko ta argizko egoitzan,
eta egizu zure sailduen lagun.
Zure Seme...

ESK. GAIN.
OTOITZA

Urrikal zakizkio, Jauna, **I...** gure anaiari,
harentzat eskaintzen baitautzugu goresmen-opari hau:
eskaintza bakegarri hunen bidez bizirako pitz dadila.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

KOMINIONEA

Aitak neri eman guziak, nere ganat etorriko dira:
eta ene ganat heldu dena, ez dut kanporat aurtikiko.

AZKEN OTOITZA Bizia dakarren sakramenduak berriturik, Jauna,
otoitz egiten dautzugu **I...** gure anaiarentzat:
zure batasunean parte eman diozunaz geroz,
meza hunen indarrez garbiturik,
bozkaria dadila beti Kristoren bakean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B.

Hil batentzat

SARTZEA

Sinesten dut nik bizi dela Salbatzailea, zinez bizi.
Lurpetik azken egunean harek behar nau pitz-arazi.
Pitz-egunean gorputz begiez hari beha,
Ikusiko dut Jainko Jaun eta Eroslea.

OTOITZA

Libra zazu, otoi, Jauna, **I...** zure zerbitzaria
bekatuaren lokarri guzietarik:
mundu huntan Kristoren iduriko izan dena, zure
sailduen artean pitz eta bizi dadin, pizteko egun
argitsuan.
Zure Seme...

OTOITZA

Jauna, zure Seme bakarrak herioa garraiturik,
zure Erreinurat iragan-arazi duzu:
egizu (**I... eta I...**) gure haurride hilek ere
haren garraipenean parte harturik,
betierean ikus zaitzaten, zu beren Egile ta Salbatzailea.
Zure Seme...

EDO

Fededun guzien Egile ta Erosle ziren Jainkoa,
eman zure zerbitzariari bekatu guzien barkamena,
gure otoitzeri esker ardiets dezaten
zure ganik igurikatzen duten urrikalmendua.
Zure Seme...

ESK. GAIN.
OTOITZA

Begi onez ikus, Jauna,
zure zerbitzariarentzat egiten dautzugun eskaintza:
eman zinioten kristau-fedearen dohaina,
emozute ere haren saria.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

KOMINIONEA Jainkoak mundurat igorri du bere Seme bakarra,
haren bidez bizi gaitezen.

AZKEN OTOITZA

Eskaini dautzugun opari hunen bidez ixur, Jauna, zure
urrikalmendu nasaia gure haurride hilen gainera: bataioan
zure grazia eman diozuteneri,
emozute orai betiko zorionaren betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

EDO

Gure otoitzak, Jauna, on egin dezotela zure zerbitzariari: opari
hunen bidez atera-zkitzu beren bekatu guzietarik,
eta emozute betiereko salbamendua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Hil batzuentzat edo guzientzat

SARTZEA

Hain du Jainkoak gure mundua maite izan,
Nun baitu bere Seme bakarra berak eman.
Ez dadien gal fede duena haren baitan,
Bainan bai bizi betierekoa izan dezan.

OTOITZA

Jainko guziahaldun betierekoa,
zu zira gizon hilkorren bizia eta sailduen poza:
ahuspez eskatzen dautzugu (**I... ta I...**) gure haurrientzat, bizi
huntako lokarrietarik libratu-eta,
zure Erreinuaren jabe izan ditezen zeruan.
Zure Seme...

EDO

Jainko guziahaldun betierekoa, bizien ta hilen nausia, guziak
urrikari ditutzu;
ahuspez eskatzen dautzugu hilentzat:
zure bihotz onak eman diezoten bekatu guzien barkamena, zutaz
poztu ditezen eta zu gorets zaitzaten betierean.
Zure Seme...

ESK. GAIN.

OTOITZA

Onhar, Jauna, Krisoren baitan lo dauden guzientzat
giten dautzugun eskaintza:
zure Semearen opariak atera ditzala
herioaren lokarrietarik,
eta ardiets dezotela betiereko bizia zure ondoan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA

Jainko Jauna, guretzat hil eta aintzaz piztu den zure
Semearen sakramendua harturik,
otoitz egiten dautzugu **I...** zure zerbitzariarentzat: egizu,
Kristoren Bazko-mixterioan garbitu-eta, zeruko zoriona
ardiets dezan pizte-egunean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E

Hil batzuentzat edo guzientzat

SARTZEA Dohatsu Jauna baitan lokartzen diren hilak:
pausa ditela beren lanetarik, jarraitzen baitzaizkiote beren obrak.

OTOITZA Jainko Jauna,
zure urrikalmenduari esker dute atseden fededunek:
I... ta **I...** gure haurrideri
eta Kristo baitan lo dauden guzieri
emozute, otoi, bekatuen barkamendua,
beren hoben guzietarik libratu-eta,
Kristoren piztean parte har dezaten.
Zure Seme...

EDO

Emozute, Jauna, zure zerbitzari hileri
zure betiko urrikalmendua:
zutan baitzuten sineste ta esperantza,
balia dakiotela betierean.
Zure Seme...

ESK. GAIN. Begi onez ikus, Jauna, hilentzat dakarkizugun eskaintza:
OTOITZA gizona salbatzen duen laguntza huni esker
sar ditezen betikotz zuk salbatuen artean. Jesu
Kristo gure Jaunaren bitartez,

KOMINIOEA Kristoren Gorputz-Odolak hartu ditugu
gure hilen orroitzapenetan:
emozute, Jauna, betiereko zoriona.

AZKEN OTOITZA Sakramendu salbagarri hau harturik, Jauna,
zure urrikalmenduari deika gaude:
zure bihotz onak eman diezagun
bizi gireneri zure laguntza,
eta gure hileri betiereko barkamena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

EDO

Zure zerbitzariak, Jauna,
eta Kristo baitan atseden duten guziek
ardiets dezatela betiko argian parte izaitea,
hemengo argian zirelarik,
zure sakramenduan parte zutenaz geroz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

OTOITZ BEREZIAK HILENTZAT

1 - AITA SAINDUARENTZAT

A

- OTOITZA** Jainko Jauna, fededunen sariztatzaile leiata,
Zure zerbitzari **I...** gure aita saildua
Petriren ordain ezarri zinuen eta zure Elizaren artzain:
zure urrikalmenduaren sakramenduak
zintzoki eman zituenak lur huntan,
heien fruituak bozik goza ditzala zeruan.
Zure Seme...
- ESK. GAIN. OTOITZA** Zurekin baketzen gaituen opari hunek, Jauna,
eman dezola zure zerbitzari **I...** gure aita sailduari zeruko zoriona,
eta guri zure graziaren dohaina.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
- AZKEN OTOITZA** Zurekin bat egiten gaituen sakramenduaz
indar-berriturik, Jauna,
otoitz egiten dautzugu **I...** gure aita sailduarentzat:
lur huntan zure Elizarentzat
batasunaren oinharri ageria egin zinuen
sar dadila orai zure artalde dohatsuaren zorionean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

- OTOITZA** Jainko Jauna, zure asmo berezian
I... gure aita saildua Elizaren buru ezarri zinuen:
egizu, zure Semeak har dezan betiereko zeruan
lur huntan bere ordain izan duena.

ESK. GAIN.
OTOITZA

Beha, Jauna, otoitzez dagon Elizaren eskaintzari:
eta I... gure aita saindua,
lur huntan zure artaldearen apez-nausi ezarri zinuena,
ezar-azu, opari huni esker, zure apez sainduen artean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA Zure maitasunak emaiten daukun laguntza harturik, Jauna,
otoitz egiten dautzugu I... gure aita saindu zenarentzat:
lur huntan zure mixterioen zerbitzari zintzo izan denak,
sainduen ospean gorets dezala beti zure urrikalmendua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,

C

OTOITZA

Jainko Jauna, arimen artzain ezin hila,
ikus otoizka ari zaitzun herria:
maitasunez zure Elizaren buruzagi izan den
I... gure aita sainduak ardiets dezala,
bere gain zuen artaldearekin batean,
zerbitzari leialaren saria.
Zure Seme...

ESK. GAIN.
OTOITZA

Onhar, Jauna, zure herriaren eskaintza baketzaile hau,
hunen bidez zure urrikalmenduaren eskuetan
uzten baitugu I... gure aita saindu zena:
Egizu, gizonen artean zure maitasunaren
eta bakearen zerbitzari izan dena,
horien fruituez bozkaria dadin zure Sainduekin betierean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA Betiereko mahainean jarri gira, Jauna,
eta zure urrikalmenduari ahuspez eskatzen diogu
I... gure aita saindu zenarentzat:
egiaren jabe izaitez bozkaria dadin,
egia hortan zure herria leialki finkatu zuena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2. APEZPIKUARENTZAT

A. DIOSESAKOARENTZAT

OTOITZA Jainko guziahalduna,
zure zerbitzari **I...** gure apezpiku zenari
emana zinion zure familiaren arta:
bere lanen fruitu nasaiekin batean
ardiets dezala Jaunaren betiko zorionean sartzea.
Zure Seme...

ESK. GAIN.
OTOITZA Zure urrikalmendu neurrigabeari
ahuspez otoizka gaude, Jauna:
I... gure apezpikuak, bizi zelarik, fededunen salbamendurako
eskaini zaitzun opari hunek
ardiets diezola orai zure barkamena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA Jainko Jauna, zure bihotz onari deika gaude
I... gure apezpiku zenarentzat: opari hunen bidez,
emozu Kristorekin izaitea betierean,
Kristo izan baitu bere esperantza,
eta Kristo baitu predikatu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,

B. BERTZE APEZPIKU BATENTZAT

OTOITZA

Jainko Jauna, zure zerbitzari **I...** apezpikua
apostoluen ondoko egin duzu apezpiku-mailerat altxatuz:
Egizu, zeruan betikotz heien lagun izan dadin.
Zure Seme...

ESK. GAIN.

OTOITZA

Onhar, Jauna, zure zerbitzari **I...** apezpikuarentzat (*kardinalearentzat*)
eskaintzen dautzugun oparia:
undu huntan apezpiku-kargua eman diozunari,
emozu ere zeruko Erreinuan sartzea zure Sainduen artean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA

Jainko guziahaldun urrikaltsua, zuk hala nahirik,
zure zerbitzari **I...** apezpikua (*kardinalea*)
lur huntan Kristoren ordain izan da:
opari hunen bidez garbiturik,
ezar-azu, otoi, Kristoren ondoan zeruetan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

3. APEZ BATENTZAT

A

OTOITZA

Jainko Jauna,
zure zerbitzari **I...** apezarentzat otoitz egiten dautzugu:
kargu saindu bat eman diozu lur huntan,
egizu, zeruan goza dezan zure aintzaren betiereko zoriona.

ESK. GAIN.
OTOITZA

Jainko guziahalduna, meza saindu hunen bidez
I... apezak ardiets dezala beti argi betean ikustea
hemen leialki zerbitzatu dituen mixterioak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA

Sakramendu salbagarria harturik, Jauna,
zure bihotz onari otoitz egiten diogu I... apezarentzat:
lur huntan zure mixterioen zerbitzari egin duzunari,
zeruetan heien egiaren betea emozu janari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

OTOITZA

Jainko Jauna,
gure otoitzak apalik eskaintzen dauzkitzugu
I... apezaren salbamendurako:
egizu, zure zerbitzari zintzo izan dena bozkaria
dadin beti zure sainduekin batean.
Zure Seme...

ESK. GAIN.
OTOITZA

Jainko Jauna, guk zure zerbitzariak
I... apezarentzat eskaintzen dautzugu opari hau,
eta zure bihotz onari dei egiten:
elizan kartsuki eskaini dautzun opariak
eman diezon orai berari barkamen osoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA

Zure mahaineko janariez berriturik, Jauna,
ahuspez otoitz egiten dautzugu:
opari hunen bidez egizu,
Elizan zure zerbitzari leial izan den I... apeza
bozkaria dadin beti zure aintzinean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

4 - DIAKRE BATENTZAT

OTOITZA Jainko urrikaltsua,
zuk egin duzu I... diakrea Elizan zure zerbitzari:
emozu orai parte betiereko zorionean.
Zure Seme...

ESK. GAIN.
OTOITZA Jainko Jauna,
I... diakrearentzat eskaintzen dautzugu opari hau:
Urrikal zakizkio, otoi,
lur huntan zure Semea zerbitzatu duenaz geroz,
zure zerbitzari leialekin bizi dadin betiereko ospean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA Dohain sainduak harturik, Jauna,
apalik otoitz egiten dautzugu
Elizako zerbitzarien mailerat deitu duzun I... diakrearentzat:
opari hunen bidez herioaren lokarrietarik libratu-ta,
emozu zintzoki zerbitzatu zaituztenekin parte izaitea,
eta zure zorionean sartzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

5 - FRAILE EDO SERORA BATENTZAT

OTOITZA Jainko guziahalduna, Kristoren maitez ibili da
I... zure zerbitzaria maitasun osoaren bidetan:
gizu, zure aintza etortzean bozkaria dadin,
eta zure Erreinuan goza dezan
bere haurridekin batean betiko zoriona.

6. HIL BATENTZAT

A

OTOITZA

Jainko Jauna, zure ondoan bizirik daude hilak,
 eta zutan dute sainduak zorion betea:
 apalik eskatzen dautzugu **I...** zure zerbitzariak,
 mundu huntako argia galdurik,
 goza dezan betiereko zoriona.
 Zure Seme...

ESK. GAIN.
OTOITZA

Atsegin bekizu, Jauna,
 zure zerbitzariarentzat eskaintzen dautzugun oparia:
 zure bihotz onaren ganik ardiets dezala
 bekatuen barkamena, zure sainduekin batean,
 bozkaria dadin eta zure aintza gorets dezan betierean.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA

Zure dohainak harturik, Jauna,
 eskerrak emaiten dauzkitzugu,
 eta ahuspez otoitz egiten **I.....** zure zerbitzariarentzat:
 Zure Semearen Pasioneari esker,
 bekatuen lokarrietarik libratu-eta,
 izan dezala zu ganat heltzeko zoriona.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

OTOITZA

Zure ganat igan ditezela gure galdeak, Jauna,
 eta zeruko zorionean sar dadila **I...** zure zerbitzaria:
 zure iduriko eta zure seme egin zinuen,
 emozu orai parte zure ondoregoan.
 Zure Seine...

ESK GAIN.
OTOITZA

Onhar, Jauna, I... zure zerbitzariarentzat
egiten dautzugun eskaintza:
denen sendabide miragarri egin duzun opari hunen bidez,
emozu betiereko salbamendua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA

Zuk eman janariez berritu-ta, Jauna,
ahuspez otoitz egiten dautzugu I... gure anaiarentzat:
herioaren Iokarrietarik libratu eta,
bozkaria dadila zure Semearen piztean parte izanez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

C

OTOITZA

Bihotz onez entzun, Jauna, gure otoitzak:
eta I... gure haurrideari emozu bekatu guzien barkamendua,
pizte-egunean izan dezan bizi,
eta argiaren zorionean atsedeen.
Zure Seme...

ESK. GAIN.
OTOITZA

Jainko guziahaldun betierekoa,
zure Semeak bere burua eman dauku biziaren ogi,
eta bere odola ixuri salbamen-edari :
urrikal zakizkio I... zure zerbitzariari,
eta orai eskaintzen dautzugun oparia izan bekio salbamen-iturri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA Betiko biziaren ageria harturik, Jauna,
 ahuspez otoitz egiten dautzugu **I...** gure haurridearentzat
 herioaren Iokarrietarik libratu-eta,
 sailduen batasunean sar,
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

GAZTE BATENTZAT

OTOITZA Jauna, gizon guzien biziak zure eskuetan ditutzu:
 entzun gure otoitza hoin gazterik joan zaikun
I... gure adixkidearentzat:
 zure etxe zoriontsuan aurki dezala betiereko gaztetasuna.
 Zure Seme...

EBANJELIOAREN ZERBITZARI ON BATENTZAT

OTOITZA Zure urrikalmenduari otoitzez gaude, Jauna,
I... zure zerbitzariarentzat:
 Ebanjelioaren zabaltzeko Jan asko ibili baitu,
 sar dadila orain Erreinuko zorionean.
 Zure Seme...

LUZAZ ERI EGON DEN HIL BATENTZAT

OTOITZA Jainko gure Jauna, **I...** gure anaia
 eritasun eta hersturetan zure zerbitzari leial egin duzu:
 oinazeak zure Semeak bezala jasan dituenaz geroz,
 emozu ere parte haren ospean.
 Zure Seme...

10. USTEGABETAN HIL BATENTZAT

OTOITZA

Jauna, nigarretan gaude **I...** gure anaiaren gatik,
ustegabetan galdu dugulakotz:
erakuts-aguzu bihotz on neurrigabea,
sinets dezagun zure ondoan bizitzerat deitu duzula.
Zure Seme...

11 . HIL BATZUENTZAT

A

OTOITZA

Jainko Jauna, urrikal zakizkiote
I... ta I... zure zerbitzarieri:
bataioko iturrian garbitu zinituenak,
ereman itzazu orai zeruko biziaren zorionerat.
Zure Seme...

ESK. GAIN.
OTOITZA

Opari hau eskaintzean, Jauna,
I... ta I... zure zerbitzariantzat apalik eskatzen dautzugu:
zuri esker, gure otoitzek ardiets dezoten
zure betiko urrikalmendua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA

Zeruko sakramenduak harturik, Jauna,
zure bihotz onari apalik dei egiten diogu: zure zerbitzariak,
meza hunen bidez, bekatuen barkamendua ardiets dezaten,
bai eta zure Erreinuan sartzea eta beti zu gorestea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

OTOITZA Jainko Jauna, zure eskuetan uzten ditugu
 I... ta I... zure zerbitzariak:
 munduarentzat hilak, zuretzat bizi ditezela,
 eta beren ahuleziaren gatik lur huntan egin dituzten bekatuak,
 zuk garbi-zkitzu zure urrikalmendu nasaian.
 Zure Seme...

ESK. GAIN.
 OTOITZA Urrikal zakizkiote, Jauna, I... ta I... zure zerbitzarieri:
 heientzat eskaintzen dautzugun bakezko opari hau,
 bizi huntan leial izan zaizkitzunek betiko saria
 ardiets dezaten zure ondoan.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA Jainko guziahalduna, sakramendu hunen indarrez,
 emozute zure zerbitzarieri
 betiereko zoriona sailduen batzarrean.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

C

OTOITZA Jainko guziahaldun betierekoa,
 etzaio behinere alferretan dei egiten zure bihotz onari:
 zure izena aitortuz joan diren I... ta I... zure zerbitzarieri
 emozute zure sailduen artean sartzea.
 Zure Seme...

ESK. GAIN.
 OTOITZA Jainko gure Jauna, zure Semeak
 bere burua eskaini zaitzun opari bizi:
 onhar, otoi, zure Elizaren oparia,

I... ta I... zure zerbitzariak,
bekatu guzietatik libratu-eta,
ardiets dezaten betiko biziaren sana.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,

AZKEN OTOITZA

Jainko guziahaldun urrikaltsua,
garbi gaitzatela hartu ditugun sakramenduek:
opari hau izan dadila guretzat barkamendu,
ahulentzat indar-bide, denentzat sandotzaile,
bizi ta hilentzat bekatu guzien barkabide,
eta betiko salbamenduaren ageri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

12 . SENAR-EMAZTE HILENTZAT

OTOITZA

Jainko Jauna, erakuts, otoi, zure urrikalmendua
I... ta I... zure zerbitzarieri:
elgarren amodio leialez bat izan dira bizi huntan,
bat izan ditela betikotz zure maitasunaren betean.
Zure Seme...

EDO

Jainko Jaun urrikalkorra,
barka zozu I... zure zerbitzariari,
eta zure betiko artaz zaint-zazu I... gure adixkidea :
elgarren amodio leialez bat izan dira bizi huntan,
bat izan ditezela betikotz zure maitasunaren betean.
Zure Seme...

13. AITAMENTZAT

OTOITZA

Jainko Jauna,
gure aita-amen maitatzea manatu daukuzu:
urrikal zakizkiote nere (gure) burrasoeri,
eta Barka heien bekatuak;
eta egizu berriz ikus ditzadan (ditzagun)
betiko argiaren bozkarioan.
Zure Seme...

ESK. GAIN. OTOITZA

Onhar, Jauna, nere aita-amentzat (gure burrasoentzat)
eskaintzen dautzugun oparia:
eman, otoi, heieri betiko bozkarioa bizien herrialdean,
eta neri (guri) heiekin batean sailduen zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA

Hartu dugun sakramenduak, Jauna,
eman bezote nere aita-ameri (gure burrasoeri)
betiko atsedena ta argia,
eta heiekin batean ase nadila (gaitezela) zure betiko aintzaz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

14. HAURRIDE, AHAIDE TA ONGI-EGILENTZAT

OTOITZA

Jainko Jauna,
barkatzea eta gizonak salbatzea maite baituzu,
zure bihotz onari dei egiten diogu
mundu huntarik joan zauzkigun
haurride, ahaide ta ongi-egilentzat:
Andredena Maria eta Saindu guziak bitarteko
ereman ditzazu betiereko zorionerat.
Zure Seme...

ESK. GAIN.
OTOITZA

Zure bihotz ona neurrigabea baita, Jauna,
onhar gure otoitz apalak:
sakramendu salbagarri hunen bidez
emozute gure haurride, ahaide eta ongi-egileeri
bekatu guzien barkamendua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA

Jainko guziahaldun urrikaltsua,
gure haurride, ahaide ta ongi-egilentzat
eskaini dautzugu goresmen-opari hau:
sakramendu horren indarrez garbi-zkitzu bekatu guzietarik,
eta zure urrikalmenduaz emozute betiko argiaren zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

HAUR BATAIATU BATEN EHORZKETAN

SARTZEA

Zatozte zuek, ene Aitaren benedikatuak, har-azue
munduaren sortzetik zuentzat apaindua dagon Erreinua.

OTOITZA

Jainko guziz ona, zure zuhurtzian hola erabakirik,
zure ganat deitu duzu haurño hau
bere biziaren hastapenean,
eta bataioko graziaz zure seme egina zinuena,
sinesten dugu orai zure erreinuan dagola:
egizu, otoi, gu ere, egun batez,
betiko biziaren jabe izan gaitezen.
Zure Seme...

ESK. GAIN. OTOITZA

Saindu egizu, Jauna, guk ekarri eskaintza:
burrasoek zuri itzuli dautzute
zuk emanik zaukaten semea (alaba),
izan dezatela zure erreinuan
berriz haren ikusteko bozkarioa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

KOMINIONEA

Bataioaz Kristorekin ehortziak izan gira heriotzean
eta sinesten dugu harekin ere biziko girela.

AZKEN OTOITZA

Zure Semearen gorputz-odolak harturik, Jauna,
otoitz egiten dautzugu:
betiko biziaren esperantzan
zure sakramenduez hazi ditutzuneri,
eman diezozuten hemengo atsegabetan
zure kontsolamendua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

OTOITZA

Jainko Jauna, ikusten duzu
gure bihotzak atsegabe ta nigarretan daudela
haurño hau hain goizik joan zaukulakotz:
emaguzu, betikotz zure zeruan dagola sinestea.
Zure Seme...

ESK. GAIN.
OTOITZA

Onhar, Jauna, gu zure zerbitzari girela
adiarazten duen eskaintza:
zure zuhurtziaren xedeak
fidantziarekin onhartzen ditugularik,
kontsola gaitzazu zure urrikalmendu goxoaz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AZKEN OTOITZA

Zure dohainak harturik, Jauna,
otoitz egiten dautzugu:
zeruko mahainean haurño hau ezarri duzun bezala,
ezar gaitzazu gu ere mahain berean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

HAUR BATAIATU GABE BATEN EHORZKETAN

Holako kasuan, aita-amek haurren bataiatzeko xedea balinbazuten, jaun apezpikuaren baimenarekin, ehorzketak egin ditazke etxean, edo elizan. Gisa hortako elizkizunak Hitzaren Liturgia du bakarrik. Behar balitz, har meza hau. Baina, aski argi begira dezagun fededunen gogoetan ideia hau: bataioa baitezpadakoa dela salbatzeko.

SARTZEA

Nigar guziak begietarik xukatuko diozkate Jainkoak,
Eta ez da gehiago izanen ez heriotzerik,
ez nigar-garrasirik, ez atsegaberik, lehengoak itzali baitira.

OTOITZA

Entzun, Jauna, zure fededunen otoitzak:
burraso hauk atsegabetan daude
beren semea (alaba) galdurik;
egizu, zure bihotz onean duten esperantzak kontsola ditzan.
Zure Seme...

EDO

Jainko Jauna, zuk dakizu bihotzen berri
eta zuk ditutzu kontsolatzen:
burraso hauien fedea ezagutzen duzunaz geroz,
egizu, sinets dezaten penarekin galdu duten haur ttipia
zure urrikalmenduaren besoetan utzia dutela.
Zure Seme...

ESK. GAIN. OTOITZA

Onhar, Jauna, gu zure zerbitzari girela
adiarazten duen eskaintza:
zure zuhurtziaren xedeak
fidantziarekin onhartzen ditugularik,
kontsola gaitzazu zure urrikalmendu goxoaz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

KOMINIONEA

Jaunak herioa suntsituko du behin betiko,
eta xukatuko ditu begitarte guzietako nigarrak.

AZKEN OTOITZA

Zure Semearen gorputz-odolak harturik, Jauna,
otoitz egiten dautzugu:
betiko biziaren esperantzan zure sakramenduez hazi ditutzuneri,
eman diezozuten hemengo atsegabetan zure kontsolamendua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

AURKI-BIDEA

Aintzin-solasa	5
JENDE HELDUEN EHORZKETAK.....	11
Meza haste	12
Agurra eta deia	13
Hauturako ritoak	13
Bekatuen urrikia	15
Otoitza	16
Hitzaren Liturgia	21
Epixtolak	22
Arteko salmoak	33
Alleluiako bertsua	38
Ebanjelioak	39
Fededunen otoitza	50
Azken otoitza	57
Azken agurra	58
Deia	59
Kantua	60
Litani-otoitza	63
Intsentsatzea eta ihinzatzea	65
Apezaren otoitza	65
Elizako zeremonia bururatzean	67
Hil-herrietarat joaitea	68
HAUR TTIPIEN EHORZKETAK	69
Meza haste	70
Deia, hauturako ritoak	70
Otoitza	71
Hitzaren Liturgia.....	73
Azken agurra	75
Deia.....	75
Apezaren otoitza	76
Elizako zeremonia bururatzean	77
Bertze kantu eta otoitz batzu	78
Gorputza elizarat ekartzean	78
Apezen jauntzi xuria	78
Kantu batzu	79
HILEN MEZAK	81



